



GRADU AMAIERAKO LANA

Sozietate kooperatibetan bazkideen erantzukizuna, mugatua ala mugabea?

Miren EPELDE JUARISTI

AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Arazoaren planteamendua eta Estatuko legediaren eredia.-1. Espainiako Kooperatiben Legeko 15.3 eta 59. artikuluen arteko analisia.-2. Baja eman duen bazkidearen erantzukizuna.-III. Autonomia Erkidegoetako sistema desberdinak.-IV. Euskadi Autonomia Erkidegoko kasua.-V. Ondorioak.- Bibliografia.

I. Sarrera

LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2014ko martxoko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan langabezia igo egin da, aldiz, Estatu mailan behera egin du. Langabezia % 1,2 igo da eta 178.148 langabe izatera iritsi gara Euskadin. Langabeziaren gehikuntza 2.112 pertsonetan eman da¹. Lurraldean banaketari erreferentzia eginez Araban 2014ko otsailean baino 737 langabe gehiago daude, eta 28.777 langabera iritsi da, hau da, % 2,63 gehikuntza eman da. Bizkaiaren kasuan, 2014ko otsailean baino 935 langabe gehiago daude, eta 99.779 langabera iritsi da, hau da, % 0,95 gehikuntza eman da. Eta azkenik Gipuzkoan, 2014ko otsailean baino 440 langabe gehiago daude, eta 49.592 langabera iritsi, hau da, % 0,9 gehikuntza eman da.

Estatuarekin konparatuz gora egin du langabeziak. Estatu mailan % 0,35 murriztu da, hau da, 16.620 pertsona gutxiago. Orain orotara, 4.795.866 pertsona dira Espainiar estatu mailan langabezian daudenak. Bestelako zenbait probintzien datuak honakoak dira: Nafarroan % 1,24 murriztu da, Errioxan % 0,35 igo da, Kantabrian % 2,88 murriztu da, Gaztela Lehoien % 0,88 murriztu da, Katalunian % 0,81 murriztu da eta Madrilen % 48 murriztu da.

Sexuaren araberako bereizketa egiten badugu, emakumeen artean langabezia igo egin dela ikus daiteke. Emakumezkoak 1.130 dira % 1,24ko gehikuntza emanez eta gizonezkoak 982 % 1,15eko gehikuntza emanez. Orotara Euskal Autonomia Erkidegoan langabeen % 51,62 emakumezkoak dira.

Adinaren arabera sailkatuz 25 urte baino gutxiagoko 602 langabe gehiago daude, 25-44 urte artekoen artean 755 gehiago eta 45 urtetik gorakoak ere 755 gehiago dira. Portzentajetan adierazita gazteen langabezia nabarmen igo dela ikus daiteke % 5,35 izanik. Beste adinen gehikuntza % 0,84 eta % 1,01 izan delarik hurrenez hurren.

¹ Euskal Enplegu Zerbitzua (LANBIDE), Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako saila. http://www.lanbide.net/plsql/es_estadisticas?idioma=E (2014.05.15ean ikusia).



III. Ikasleen ekarpenak



2

Gaur eguneko krisiaren eragina dela eta nabaria da langabeen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan okerrera doala. Hala ere, esan behar da, krisiaren fenomenoak hasi zenean kooperatiben eratzeak nabarmen gora egin zuela. 2011ko abenduan Euskadin 2.074 kooperatiba zeuden % 22,3 gehiago 2008an baino. Honen arrazoia zer da, besteren kontura lan egien duten langileen kontratazioa oso baxu zegoen eta pertsona askorentzat irtenbidea lana bere kabuz egiten hastea izan zen, horrela kooperatibak sortuz.

PEDREÑO jaunak, CEPES (*Confederación Empresarial Española de Economía Social*) erakundeko presidentek, adierazi du² kooperatibak langabeziari aurre egiteko instrumentu bikainak direla. Hala nola, garapen eta kontratazioan aurrera egiten lagundu dutela eta krisia hasi zenetik Espainian Ekonomia Sozialak enplegua mantendu duela, 2.400.000 lanpostu baino gehiagorekin eta 20.000 enpresaren irekierarekin.

Euskadin kooperatibismoaren munduan oso murgildua dagoen herrialdea da. Horren adibide nagusia dugu *Mondragon Corporación Cooperativa*. Hirurogeigarren hamarkadan kooperatiba industrialen eratzea hedatu zen Arrasateko zonaldean. Beranduago, 1973. urtean kooperatiba hauek hazkundera mantendu ahal izan zuten Caja Laboral Popular, Lagun Aro, Ikerlan...

Mondragon taldearen beharrezkoa Espainiako ekonomia, Euskadikoa barne, krisian sartu zenean hasi zen, hirurogeita hamargarren hamarkadan. Hasiera batean sektore nagusien berregituratzea egitea posible izan zen eta horixe gertatu zen FAGOREkin. Gauzak horrela, enpresa asko eta asko ixten joan ziren baina Mondragon Taldeak aurrera egin ahal izan zuen. Talde honek beraz aurrera irteteko ahalmena izan zuen eta ez zion garai horretako krisiak hainbeste eragin. Taldeko kooperatibei galerak sortzen zitzaizkienean talde industrialaren irabaziekin egiten zitzaien aurre. Azken batean taldeko kooperatiba desberdinen artean solidaritatearekin jokatu zen eta elkar laguntzeko babesa eratu zen.

Honen ostean, Europar Batasunean sartzearekin, kooperatiba industrial gehienak emaitza onak izaten hasi ziren laurogeita hamarrekoko hamarkadan. Baina laster iritsi zen hamarkada horretako krisiaren eragina eta taldearen atzerapena hasi zen horrekin batera. Hala ere, aipatzekoa da, nahiz eta egoera bestelakoa izan, Eroski Sozietate Kooperatibak izan zuen hedapena, Euskaditik kanpo iritsi zenekoa.

Mondragon Taldeak 1991n bere taldeko kooperatiba guztientzat araudi orokor bat eratu zuen, horrela kooperatiba bakoitzak Mondragon Kooperatiba korporazioan sartzeko askatasuna zuen. 1992. urtean hiru zatitan banatu zen: finantza taldea, industriako taldea eta banaketa taldea³.

Denborak aurrera egin du eta orain artean Mondragon Taldeak ez zuen egun bitzitzen ari den porrotik jasan. Hainbat enpresen ixtea etorri da eta horrek Mondragon Taldearen ospea eta izen ona kolokan jarri ditu. Nagusiki kaltea Arrasate inguruan gertatu bada ere, taldeak zuen hedapena dela eta, beste zenbait herrietan ere eragin du bere gain beharak.

Fagor Electrodomésticos, Mondragon Korporazioko ikur handienetako bat, egoera larrian aurkitzen da krisi ekonomikoa dela eta. Salmentak % 37 jaitsi dira 2007. urtetik (600

² <http://www.europapress.es> (2014-05-26an ikusia).

³ BAKAIKOA AZURMENDI B., 'El cooperativismo vasco el ejemplo de la Mondragon Corporación Cooperativa', *El cooperativismo Vasco y el año 2000*, Marcial Pons, Gezki, Madril, 1995, 29-47 orr.





milioi euro) eta 2008. urteaz geroztik langileen kopurua erdira murriztu da. Guztira eratu den zorra 700-800 milioi eurokoa da.

Iazko denboraldian baino hiru aldiz galera handiagoak izan ditu Fagor Etxetresnak, 60,4 milioi eurokoak izanik. Aipatzekoa da Fagorrek irabaziak izan zituen azken aldia 2008. urtea izan zela. Hala ere, urte horretako mozkinak ere ez ziren oso esanguratsuak izan aurreko urteekin konparatuta 121.000 euro eta aurreko urtean 13,4 milioi euro⁴.

Ahaleginak eginagatik ere ez da nahikoa izan Fagor etxetresnak salbatzeko eta konkurtsoan erori da. Gauzak horrela, bazkideen artean kooperatibaren zor eta galerei aurre egiterako garaian beraien erantzukizuna noraino iristen denaren zalantza agertu da eta zalantza hau hartzekodun direnengana ere zabaldu da.

Zalantza horiek argitzea izango da beraz Gradu amaierako lan honen funtsa.

II. Arazoaren planteamendua eta estatuko legediaren eredua

Kooperatibatako bazkideen erantzukizuna aztertzen hasteko, gogora dezagun sozietateen eremuan, merkataritzako zuzenbidearen doktrinan nahiko finkatua dagoen sailkapenaren arabera bi sozietate-mota bereizten direla: batetik, sozietate pertsonalistak eta bestetik korporatiboak. Lehenengok bazkideen artean dagoen harremanari egiten diote erreferentzia, batez ere, bazkideen arteko indibidualtasunari⁵. Sozietate hauen ezaugarri nagusienak honakoak dira: (1) bazkide-izaera xedaezina; (2) organizazioaren pertsonalizazioa (hots, bazkideren bat hiltzen den kasuetan sozietatearen disoluzioa emango da, erabakiak hartzerakoan denen adostasuna beharko da e.a.); (3) administrazioaren deszentralizazioa eta 4) ondareen arteko komunikazioa. Sozietate-mota honen barruan kokatzen dira sozietate zibila, kolektiba, komanditario sinplea eta barne sozietateak.

Sozietate korporatiboen kasuan berriz, organizazioaren autonomia nagusitzen da eta honen ezaugarri nagusiak aurrekoaren alderantzizkoak dira: (1) bazkide izaeraren aldakortasuna; (2) organizazioaren egonkortasuna; (3) administrazioaren zentralizazioa eta (4) ondarearen isolatzea. Mota honen barne aurkitzen dira erantzukizun mugatuko sozietatea, sozietate anonimoa, akzio bidezko sozietate komandatariora, nekazal eraldaketako sozietatea, elkarrekiko bermedun sozietatea, kooperatibak eta aseguru mutuak. Beraz, kooperatibak bigarren multzo honetan kokatzen dira.

Kooperatibak pertsona desberdinez osatutako asoziazio autonomoak dira. Pertsona hauen elkartzea borondatezkoa da eta helburu eta behar ekonomiko, sozial eta kulturalak asetzeko izaten da. Kooperatibek pertsonalitate juridikoa daukate Kooperatiben Erregistroan inskribatzen diren momentutik. Horrek esan nahi du kooperatibak edozein motatako ondasunak eskuratu, obligazioak hartu eta akzio zibil edo kriminalak egikaritu ditzakeela.

⁴ <http://www.eitb.com/eu/albistek/ekonomia/oso/1675780/fagor-etxetresnak-kooperatibaren-krisia-zenbakitan/>. (2014.04.30ean ikusia).

⁵ PAZ-ARES C., Capítulo 19, 'La sociedad en general: elementos del contrato de sociedad', en: URÍA, R. eta MENÉNDEZ, A. (Dir.) *Curso de Derecho Mercantil I*, 2., Thomson Civitas, Madrid, 2006, 504-529 orr.



Sozietate hauek laguntasun, arduratasun, demokrazia eta berdintasunean oinarriturik daude eta beren baitan printzipio berezi batzuk jasotzen dituzte Euskadiko kooperatiben Konfederazioaren arabera⁶:

- (1) Atxikipena borondatezkoa eta irekia da, ez da inolako diskriminaziorik burutzen.
- (2) Bazkideen esku egoten da gestio demokratikoa, hau da, kooperatibaren erabakietan bazkideek modu aktibo batean hartzen dute parte. Bazkide guztien ordezkari direnak aukeratuko dira denen artean eta horiek izango dira kudeaketaz arduratuko direnak. Bazkide bakoitzak boto bat izango du.
- (3) Bazkideek parte hartze ekonomikoa izango dute ondare sozialean. Bazkide bakoitzak sozietatearen ondarrera ekarpen bat egingo du eta ekarpen hori eginagatik bazkide izaera hartuko du.
- (4) Autonomia eta independentzia dute oinarri, ez daude inori lotuta autonomoak dira. Eta beste entitateekin akordiorik eginez gero ere bazkideen horren gaineko kontrola emango dute eta kooperatibaren autonomia mantentzen saiatuko dira.
- (5) Kooperatibek beren bazkideen heziketa, formazioa eta informazioa sustatzen dituzte jarduerak modu eraginkor batean burutzen jarraitzeko eta azken batean etengabeko ikasketa bat izateko.
- (6) Kooperatiben arteko kooperazioa ere posible da modu lokal, nazional, erregional eta internazional mailan.
- (7) Erkidegoekiko interesa dela eta kooperatiba bakoitzak bere erkidegoko garapenaren alde jarduten du.

Kooperatibei buruzko araudiari dagokionez, Espainiaren kasuan, alde batetik, Estatu mailan legedia orokor bat dago, Espainiako Kooperatiben uztailaren 16ko 27/1999 Legea⁷ eta bestalde, Autonomia Erkidegoek duten eskuduntza eskusiboan kontuan izanik (aurrerago azalduko dira eskuduntza eskusiboaren nondik norakoak), Erkidego bakoitzean legedi propioa jasotzen da. Bereizketa honek, arauak interpretatzerako garaian hainbat eta hainbat arazo ekarri ditu. Horietako bat izan da gaur egun interes berezia piztu duena eta lan honetan landuko duguna, bazkideen erantzukizunarena hain zuzen ere.

Horretarako bi subjektuen artean bereizi beharra daukagu: batetik, sozietatea bera eta, bestetik, berau osatzen duten bazkideak. Printzipioz, sozietate kooperatiba batek bere zorren aurrean erantzukizuna izango du. Izan ere, sozietateak pertsonalitate juridiko propioa dauka eta bazkideekiko ondarea banatuta egoten da.

Bazkideek kooperatibaren kapitalaren zenbatekoa osatzen dute. Hots, bazkide bakoitzak egin duen ekarpena kontuan hartuz sozietatearen kapital soziala osatzen da. Espainiako Kooperatiben legeko (27/1999 Legea) 46.1 artikulua jasotzen du Estatutueta zehaztuko dela bazkide bakoitzak egin beharreko ekarpenaren nondik norakoa, baina aldi berean beraien artean desberdina izan daitekeela, bazkide-mota bakoitzaren arabera⁸.

Bestalde, gogoratu behar dugu sozietatearen ondare-egoerari dagokionez, aktibo eta pasiboaren arteko bereizketan, kapitala pasiboan kokatzen dela, bai eta sozietateak berak bere gastuei aurre egiteko eskatu dituen kredituak ere, eta aktiboan, berriz, sozietateak egindako erosketak, besteak beste.

⁶ KONFEKOOP Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren web orria <http://www.konfekoop.coop/index.php?idsec=6> (2014-05-17an ikusia).

⁷ Ley 27/1999, de 16 de julio, de Cooperativas, BOE núm. 170, de 17 de julio de 1999.

⁸ Estatuko Kooperatiben Legea (27/1999 Legea) 46.1 art.: *los Estatutos fijarán la aportación obligatoria mínima al capital social para ser socio, que podrá ser diferente para las distintas clases de socios o para cada socio en proporción al compromiso o uso potencial que cada uno de ellos asuma de la actividad cooperativizada.*





Eremu honetan zorra eta galeraren arteko bereizketa egitea komenigarria da. Alde batetik, Kooperatiba batean zorrekin aurki gaitzke, hau da, kooperatibak egin duen erosketa baten ordainketa-eza dela eta zor baten aurrean egongo ginateke. Beste alde batetik, galerak izan ditzakegu, hots, kooperatibaren urteko emaitza positiboa den edo negatiboa den baloratu behar da irabazien ala galeren aurrean gauden jakiteko. Galera baten aurrean egongo gara enpresa batek produzitu duena baino gutxiago saldu duenean esaterako, baina horrek ez du esan nahi enpresa hori zorretan dagoenik. Alderantziz ere gerta daiteke, enpresa batek zorrak izatea baina bere urteko emaitza positiboa izatea. Beraz, zorra eta galera gauza desberdinak dira.

Sozietatearen erantzukizunari aurre egiteko unean sozietatea izango da arduradun eta erantzule nagusia. Kode Zibileko 1911. artikuluan⁹ xedatzen den bezala, zorren aurrean zorduna izango da erantzulea bere oraingo eta ondorengo ondarearekin. Hori da zuzenbidean erregela orokorra, erantzukizun unibertsala, baina Kooperatiben kasuan erregela horren salbuespena gertatzen da (aurrerago azalduko da salbuespenaren nondik norakoa).

Sozietatearen ondarea elementu desberdinek osatzen dute. Batetik, eta esan bezala kapital soziala dago, baina bazkideek egindako ekarpenak ez du beste sozietateetan bezala partizipazioa adierazten, izan ere, ez da ondare netoaren zati alikuota bat, ondare neto banagarriaren zatia baizik¹⁰. Honez gain, kapital soziala osatzen ez duten bazkideen beste ekarpen batzuk egotea ere posible izango da. Hori horrela, lehen ondarearen zatia banagarria izango da eta bestea berriz banaezina eta Kooperatiben kasuan beti errespetatu beharrekoa (aurrerago azalduko den Erreserbarako Derrigorrezko Fondoa, alegia).

Azken batean, kapitaleko sozietateetan ez bezala, kooperatibako kapitala bazkideen sarrera eta irteeren arabera mugikorra da. Hala ere, errespetatu beharreko zenbateko minimo bat egongo da beti Kooperatibak funtziona dezan, honela jasotzen da estatuko Kooperatiben Legeko (27/1999 Legea) 45.2 artikuluan: *Los Estatutos fijarán el capital social mínimo con que puede constituirse y funcionar la cooperativa, que deberá estar totalmente desembolsado desde su constitución.*

Kasu honetan ez da zenbateko minimoaren zehaztasunik egiten baina Autonomia Erkidego ia denetan Aragoikoan izan ezik, zenbateko hori zehaztu egiten da, hots, errespetatu beharreko zenbateko minimoa 3.005€ dira. Honela beraz, Sozietate Kooperatiben barruan kapital finkoa eta mugikorra bereizten dira.

Bazkideek kapital sozialera egindako ekarpena kapital mugikorra izango da, izan ere, baja ematerakoan egindako ekarpenaren dirua itzultzea eska dezakete, noski, beti kapitalaren zenbateko minimoa errespetatuz. Hauei errenboltso automatikoak deituko zaie. Hala ere, kapitalaren barruan, Batzar Orokorrek erabakitzen duen portzentaian gerta daiteke diru-itzulketa egiterik ez egotea. Hauek errekurtsio propio gisa izendatuko dira¹¹. Hala ere, batzuen iritziz,¹² hemen ez da diru-itzultzearen ideia erabili behar, hau da,

⁹ KZ 1911. art.: *Del cumplimiento de las obligaciones responde el deudor con todos sus bienes, presentes y futuros.*

¹⁰ VICENT CHULIÁ, F., *Introducción al derecho mercantil*, 1. alea, 23 zb., Tirant lo Blanch, Valentzia, 2012, 1186-1191 orr.

¹¹ CARRERAS ROIG L., 'El subsector empresarial no financiero de la economía social', *La fiscalidad de las sociedades cooperativas, sociedades laborales y sociedades agrarias de transformación*, Universitat Rovira i Virgili, 2008, 186-297 orr, (<http://www.tdx.cat/handle/10803/8759> (2014-05-17an ikusia)).

¹² VARGAS VASSEROT C., 'El derecho de reembolso del socio en caso de baja y el concurso de las sociedades cooperativas', *Revista Jurídica CIRIEC* 21, 2010, 1-22 orr. *En realidad el socio no tiene un derecho al reembolso, sino a la*





bazkideak ez dauka errenboltoa egiteko eskubiderik. Bazkideak duena da bere ekarpenen likidazioa egiteko eskubidea.

Aipatzekoa da kooperatibetan kapital sozialak ez duela beste sozietateekiko funtzio berdina betetzen. Ez du zenbatekoaren arabera boto-kopurua adierazten, ez ditu bazkideen eskubideak zehazten ezta emaitzak banatzerako orduan zehaztasunik egiten ere.

Bestetik, Batzar Orokorrak edo Estatutuek, bazkideek ordaindu beharreko beste zenbateko batzuk ezartzeko aukera ere badute, borondatezko ekarpena deiturikoa. Ekarpen horiek ordea ez dute kapital soziala osatuko¹³. Hau da, bazkideek ondasunak entregatzen dituzte kooperatibizatutako zerbitzuen ordainketa gisa, baina ez ekarpen modura. Honekin sozietateko fondoak eratuko dira, non, batzuk borondatezkoak diren eta besteak berriz derrigorrezkoak. Erreserba fondo hauek kooperatibaren abal modura jokatzeko dutela esan genezake, izan ere, izenak dioen moduan erreserbak dira. Borondatezkoak sozietate bakoitzaren arabekoak izango dira baina derrigorrezkoak denetan egon behar dutenak dira. Azken hauek izango dira sozietatearen erantzukizunaren muga, hau da, nahitaezko diren fondo hauek enbargaezinak dira eta aldi berean bazkideen artean banaezinak. Hau da, fondo hauek ezin izango dira kooperatibaren likidazio fasean bazkideen artean zatitu.

Derrigorrezko fondoaren barruan bi mota aurkitzen ditugu: batetik, *Fondo de Reserva Obligatorio*¹⁴ deiturikoa eta bestetik, *Fondo de Educación y Promoción*¹⁵ deiturikoa¹⁶.

Valentziako Kooperatiben Legean¹⁷, esaterako, honela jasotzen da fondo hauen enbargatzeko ezintasuna: *el Fondo de Reserva Obligatorio es inembargable durante toda la vida de la sociedad cooperativa, sin perjuicio, en todo caso, de su ejecutabilidad en fase de liquidación de la sociedad cooperativa*. Honekin adierazi nahi dena zera da, sozietateak beti mantendu behar duela derrigorrezkoak diren fondoaren edukia, hau da, eguneroko jardunean fondo horien erabilera ez dela onartuko. Horregatik jasotzen da enbargaezintasunaren ideia.

Bestalde fondo honetako zenbatekoak ezin dira bazkideen artean irabazi modura banatu, hau da, fondo honetan dagoen zenbatekoa banaezina da. Honela jasotzen da argi eta garbi zatitze-ezintasunaren ideia Espainiako Kooperatiben Legeko (27/1999 Legea) 55.1 artikuluan: *El fondo de reserva obligatorio destinado a la consolidación, desarrollo y garantía de la cooperativa, es irrepensible entre los socios*.

Artikuluak berak dioen moduan, fondo hauek kooperatibaren kontsolidazio, garapen eta azken batean garantia edo aurrez aipaturiko abala osatzen dute, beraz, ezin daiteke bazkideen artean banatu. Aipatutako fondoak kooperatibaren existentzian iraun

liquidación de sus aportaciones en el momento que se produce la baja según el balance de cierre del ejercicio (art. 51.1 LCOOP), que puede significar un importe mayor o menor al que el socio realizó para ingresar en la sociedad.

¹³ Estatuko Kooperatiben Legea (27/1999 Legea) 52. art.: *aportaciones que no forman parte del capital social. Los Estatutos o la Asamblea General podrán establecer cuotas de ingresos y/o periódicas, que no integrarán el capital social ni serán reintegrables. Dichas cuotas podrán ser diferentes para las distintas clases de socios previstas en esta Ley, en función de la naturaleza física o jurídica de los mismos o, para cada socio, en proporción a su respectivo compromiso o uso potencial de actividad cooperativizada.*

¹⁴ Estatuko Kooperatiben Legea (27/1999 Legea) 55.1 art.: *el fondo de reserva obligatorio destinado a la consolidación, desarrollo y garantía de la cooperativa, es irrepensible entre los socios.*

¹⁵ Estatuko Kooperatiben Legea (27/1999 Legea) 56.5 art.: *es inembargable e irrepensible entre los socios, incluso en el caso de liquidación de la cooperativa.*

¹⁶ URÍA R., MENÉNDEZ A., VÉRGEZ M., Capítulo 52, 'Sociedades cooperativas', en: URÍA-MENÉNDEZ (Dir.) *Curso de derecho Mercantil I*, 2.Ed, Thomson Civitas, Madrid, 2006, 1438 orr.


¹⁷ Ley 8/2003, de 24 de marzo, de Cooperativas de la Comunidad Valenciana, BOE núm. 87, de 11 de abril de 2003.





behar du, kooperatibaren garapena sustatuz. Gaineratu sozietate kooperatibaren itxia gertatzen bada, arrazoia edozein delarik ere, derrigorrezkoak diren fondo hauek mantendu egingo direla. Konkurtsoaren kasuan esaterako, fondoko dirua ezingo da erabili hartzekodunekin dauden zorrak ordaintzeko. Beraz, gerta liteke hartzekodunak kobratu gabe geratzea.

Bazkideen erantzukizunaren eremura joaz, kontuan izan behar da kooperatibaren izaera. Kooperatiba bat eratzerako garaian bazkideek konpromiso batzuk hartzen dituzte. Horien artean hasierako ekarpen bat egitearena dago eta, esan bezala, horrek kapital soziala osatuko du. Gauzak horrela, bazkideen erantzukizuna Espainiako kooperatiben legearen 15.3 artikulua araberako ekarpen horren gain baldintzatua geratzen da.



Dakigun bezala, sozietateen eremuan, bazkideen bi erantzukizun-mota bereizten dira, sozietateen zorrei dagokienez: alde batetik, erantzukizun mugatua eta bestetik, mugagabea. Gaineratu behar da sozietate-mota batzuetarako legez bazkideen erantzukizun mugatua ezarri izanagatik ere, aukera ematen zaiela sozietateko estatutuen bidez beraien erantzukizunaren eremua zabaltzeko. Hau da, nahiz eta legedia orokorrak ideia bat jaso, hori aldatzeko aukera aurreikusten da. Beraz, sozietate kooperatibei dagokienez, egoera berezia da. Segun eta Autonomia Erkidego bakoitzeko legedian zer ezartzen den, bazkideen erantzukizuna izango da: mugatua, mugagabea edo mugatua baina osagarriren batekin.

Aukera hau sozietate kooperatibetan bakarrik gertatu izan da betidanik, bai gure zuzenbidean baita beste zenbait herrialdeetan ere. Alemanian esaterako¹⁸, printzipioz bazkideen erantzukizuna mugatua dela ikus daiteke, baina estatutuen bidez berau zabaltzeko aukera aitortzen da. Azken batean, bi erantzukizun mota bereizten ditu, batetik mugatua eta bestetik, mugagabea.

Horren arrazoia bere jatorri historikoa da. Sozietate kooperatiba beti bere funtzio mutualistan oinarriturik egon da, hau da, bere bazkideen interesak asetzeko sortua izan da betidanik, eta legez ezartzen diren erantzukizun-moten artean aukera dezake. Hori horrela, Estatutuetan egindako aukera zein den jaso egin behar da, legedia orokorrean ezarritako erantzukizun mugatuaren ideia salbuespenak egiteko aukera izanik.

Beraz, batetik, erantzukizun mugatua daukagu. Honela, bazkideak sozietatera dirukantitate baten ekarpena egitera konprometitzen dira bertako kapital sozialera eta beraz, beraien erantzukizuna kantitate horretara mugatzen dute. Beraz, ezin izango zaie kantitate horretatik kanpoko zenbatekorik eskatu, beraien erantzukizuna ekarpenean egindako zenbatekora mugatzen delako.

Bestetik, erantzukizuna mugagabea ere izan daiteke. Gauzak horrela, bazkideak bere obligazioen aurrean bere ondare osoarekin erantzuteko ardura hartzen du, oraingo eta geroko ondarearekin, modu mugagabean. Eremu honetan bazkideen erantzukizuna

¹⁸ GARCÍA GALLARDO M., 'Derecho comparado de las cooperativas de crédito y cajas rurales', *Estudios cooperativos* 51, Universidad Complutense de Madrid, 1983, 13-21 orr.





mankomunatua izango da, hau da, bazkide guztien artean banatzen da erantzukizuna eta bakoitzak zati batekin erantzungo du, ez bada behintzat estatutueta erantzukizun solidarioerik ezarri, hots, bazkideak kooperatibarekin batera erantzukizuna izatea. Kasu horretan, hartzekodunak edozein bazkideri zorraren osotasuna eskatu ahal izango dio. Mankomunatuaren kasuan, bazkide bakoitzak zati proportzional batekin egiten dio aurre zorrari.

Azkenik, posible da ere erantzukizun mugatuari erantzukizun osagarriren bat gehitzea. Hala, printzipioz bazkideak berak egindako ekarpenarekin erantzungo du, baina zati gehigarri bat ezartzen zaio enpresa kaudimengabezia kasuan erortzen den kasurako. Hau da, printzipioz egin duen ekarpenarekin erantzunez, nahikoa dela presumitzen da, baina sozietatea kaudimen gabezia erortzen bada, orduan bazkide bakoitzari erantzukizuneko zati gehigarri bat ezartzen zaio.

Legedia orokorraren eremuetara itzuliz eta aurrekariak aztertuz, Kooperatiben arauketan lehen legedia 1931ko urriaren 9koa izan zen eta bertan 5. artikuluan bazkideen gain hiru erantzukizun motak aurreikusten ziren.

Geroago, 1942ko urtarrilaren 2an eginiko Kooperazio legeak bazkide guztien erantzukizuna berdina izango zela jaso zuen, aurrez aipatutako hiru erantzukizunei aipamenik egin gabe. Ideia hau oso kritikatu izan zen, ez zelako erantzukizunaren nolakotasunaren inongo adierarik ematen. Hori horrela, 1943ko azaroaren 11ko dekretuak ezarri zuen estatutu bidez erantzukizuna mugatu edo mugagabea ezar zitekeela.

Aldaketa honek ez zuen doktrinako autoreen artean interpretazio berdina izan. Batzuen ustetan atzera pausoa zen eta Europako sistema arruntetara itzultzea¹⁹. Beste batzuen iritziz, berriz, erantzukizun osagarriari ez zitzaion lekua kendu eta oraindik bere aplikazioa egitea bideragarri jotzen zuen²⁰. Arrazoiketa hau hiru puntutan oinarritzen zen. Batetik, erantzukizun osagarria erregelamenduan jasotako erantzukizun mugatuaren bariante gisa kontsideratzen zuten. Bestetik, atzerriko herrialdeetan erantzukizun modalitate hau jasotzen zela zioten. Eta azkenik, gure zuzenbidean izan dezakeen onarpena ezin zitekeen zalantza jarri, izan ere, pakto askatasuna aitortzen zen.

Honen ostean, 1971ko abuztuaren 13ko 2396/1971 Dekretuak²¹, nork, Kooperazio lege berria onartu zuen, berriro ere erantzukizun mota desberdinei atea ireki zien. Hirugarrenetik bazkideen erantzukizuna mugatua edo mugagabea izan zitekeen. Baina Kooperatiba bakoitzak beren Estatutueta erantzukizunaren zer nolakotasuna erabaki behar zuen, izan ere, ez zen nahi kooperatiba berdin baten barruan bazkideen erantzukizuna desberdina izaterik. Gauzak horrela, Estatutuen erantzuna isiltasuna baldin bazen, bazkidearen erantzukizuna mugatua izango zela jaso zen. Eta hartzekodunei ondasun sozialen bidez beren zorrak estaltzea eskatzen zitzairen bazkideengana jo aurretik.

Gaur egun, erregela orokorra bazkideen erantzukizun mugatua da. Honen barne kontuan hartu behar dugu ea ekarpen gisa egitera behartutako zenbatekoa bazkideek jarri duten edo ez. Honela, gerta liteke kooperatiba kaudimengabezia erortzen den unean bazkideak zenbatekoa ordaindu gabe izatea osorik edo zati batean. Orduan, Administrazio Konkurtsalari egokitzen zaio bazkideari falta zaion zenbatekoa eskatzea, ezin izango dute

¹⁹ VERRUCOLI P., *La società cooperativa*, Ed. Giuffrè, Milan, 1985, 160 orr.

²⁰ ARCO ÁLVAREZ, J.L., 'Régimen económico de las cooperativas españolas', *REVESCO*, 1970, 39 orr.

²¹ Decreto 2396/1971, de 13 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Cooperación, BOE núm. 242, 9 de octubre de 1971.





inoiz hartzaileek erreklamaziorik egin. Baina erregela hau ez da beteko bi hilabeteko epean administratzaileek ez badute egin beharreko erreklamazioa burutzen bazkidearen gain. Prozedura honetan bazkideak borondatez ordainduko duela ulertuko da baina gerta liteke hori horrela ez izatea eta orduan zorra ordaintzeko bide judiziala jarriko da martxan.

Erantzukizun mugatuaren ideia hau esan bezala, Estatuko kooperatiben legedian eta zenbait Autonomia Erkidegokoetan jasotzen da. Eremu honetan, Estatuko Kooperatiben Legea (27/1999) aztertuko dugu, bereziki 15.artikulua.

1. Espainiako Kooperatiben Legeko 15.3 eta 59. artikuluen arteko analisisia

Espainia mailako legediaren arabera badirudi bazkide bakoitzak kooperatibaren zorren aurrean duen erantzukizuna egindako ekarpena mugatzen dela, ez gehiago ez gutxiago. Hala dio Espainiako Kooperatiben Legeko (27/1999 Legea) 15.3 artikulua²². Espainiako Kooperatiben legean ezarritako bazkideen erantzukizun mugatua ere jurisprudentzian jasoa izan da, esaterako, Leoneko Audientzia Probintzialeko 2003ko maiatzaren epaian²³: *los socios no responderán personalmente de las deudas sociales salvo disposición en contrario de los estatutos, en cuyo caso deberán determinar el alcance de la responsabilidad*. Epaileak oinarri juridiko gisa erabiltzen dituen hitz hauek 1987ko Kooperatiben legean²⁴ jasotzen dira, hain zuzen ere, 71. artikuluan. Bertan, Autonomia Erkidegoek Estatutuetan nahi duten erantzukizun-mota ezartzeko duten aukera ere jasotzen da.

Sozietatea likidazio fasean erortzen baldin bada beraz, atea irekitzen zaio bazkideen zorrengatik erantzukizunari. Eta honen aurrean bazkideari egin behar bat sortuko zaio. Jarri beharreko ekarpenaren zenbatekoa ordaindu beharko du oraindik osoa ordaindu gabe baldin badauka. Izan ere, kooperatiba likidazio-fasean egonda bere masa aktiboan bazkidearen ekarpenen diruarekin kontatzen du zorrei aurre egiteko neurri gisa.

Kapital sozialera egiten den ekarpena kontutan hartuta esan behar da bazkidearen erantzukizuna ez dela berak egindako ekarpena eta kapitalean guztira dagoen ondasunarekin nahastu behar. Hau da, imajinatu bazkide batek 1.000 € ko ekarpena egin duela eta guztira kapitalean 3.000 € daudela. Bazkide horrek berak ekarritako 1.000 €ren gain erantzuten du eta ez gehiagoren gain. Eremu honetan hiru kuoten arteko bereizketa egin daiteke²⁵:

(1) Kuota soziala, estatutuetan zehaztutako datetan ekarpen bidez egindako zenbateko maximoa da. Eta estatuetan esan bezala, bazkide bakoitzarentzat kuota bat baino gehiago ezar daitezke. Hauek kapitalerako ekarpenak eta bestelako ekarpenak izango dira hurrenez hurren.

(2) Kuota desentoltsatua bazkideak egin dituen ekarpenen batuketara izango litzateke. Hau da bazkideek egin beharreko ekarpena jada egina dagoen edo ezaren artean bereizi behar da. Orduan, jarrita dagoen ekarpenen zenbatekoak osatuko du kuota hau.

(3) Ekarpenaren baturak muga maximoa zehazten du hau da, bere erantzukizunaren muga azalduko du eta hortik aurrera bazkidea ezingo da deitu ekarpen gehiago egitera. Hauxe izango litzateke erantzukizun mugatua.

²² Espainiako Kooperatiben legea (27/1999 Legea) 15.3 art.: *la responsabilidad del socio por las deudas sociales estará limitada a las aportaciones al capital social que hubiera suscrito, estén o no desembolsadas en su totalidad*.

²³ Audiencia Provincial de León (Sección 2ª) Sentencia núm. 209/2003, de 30 de mayo.

²⁴ Ley, 3/1987, de 2 de abril, General de cooperativas, BOE núm. 84, de 8 de abril de 1987.

²⁵ BOTTERI T., 'La normativa delle cooperative nella legislazione della Repubblica Federale Tedesca', *Rivista della Cooperazione* 3, 1980. 92orrr.



Bazkideen erantzukizunaren batura eta bazkideek egindako ekarpenen batura ez dira gauza bera²⁶. Izan ere, nahasketa handiak egoten dira bi ideia hauen artean. Bi batura hauen arteko zenbatekoa berdina izan daiteke, hots, erantzukizunaren aurrean egindako ekarpenen arabera erantzungo dela esan ohi da, baina horrek ez du zertan horrela izan behar. Izan ere, kooperatibako bazkide izateagatik egin beharreko ekarpen bat egongo da eta horrek kapital soziala osatuko du, baina gerta liteke bazkide batek, horrez gain, bestelako ekarpenak egitea eta hauek kapital soziala ez osatzea.

Aurrera jarraituz, beste arazo batekin topo egiten dugu, Espainiako Kooperatiben Legea interpretatzerako garaian zalantzak sortzen dira 59. artikuluekin²⁷. Lege bereko 15.3 artikuluan garbi esaten da bazkideek beren ekarpenen arabera erantzungo dutela Kooperatibaren zorren gainean. Aldiz, 59.3 artikulua galeren egoeraren aurrean aukera desberdinak aurreikusten ditu beraien leporatzea egiteko. Batetik, posible da kontu berezi batean sartzea eta gerora lortuko diren emaitza positiboekin aurre egitea. Gerorako emaitza positiboan epe hori gehienez zazpi urtekoa da, hau da, zazpi urteren buruan lortzen diren emaitza positiboekin konpentsatu ahal izango dira galerak. Irabazi hauek sozietaterenak izango direnez, galeren erantzukizuna sozietate berarena izango da eta ez bazkide bakoitzarena modu indibidualean. Bestetik, posible da ere galeren konpentsazioa kooperatiban dauden fondoak erabiliaz egitea, derrigorrezko fondoa eta borondatezko fondoa. Horren arabera, fondo hauek erabiltzen badira galerak konpentsatzeko, sozietatearen irabazien bidez osatzen direnez fondo hauek, kasu honetan ere erantzukizuna sozietatearena izango da. Baina bada hirugarren aukera bat, bazkide bakoitzaren gain ordaindu beharreko zenbatekoa ezartzea eta ondorioz, konpentsazioa bazkideen esku geratzea, hau da, erantzukizuna bazkideena izatea.

Ondorioz, bazkideek erantzukizuna izango dute Kooperatibaren galeren gainean sozietateak dituen fondoan ondarea nahikoa ez denean eta horiei aurre egiteko bi modu izango dituzte.

Alde batetik, posible izango da egindako ekarpenaren arabera edo kooperatiban egindako bazkidearen edozein inbertsioaren aurrean modu zuzenean zenbatekoa kentzea, galera sortu eta hurrengo ekitaldian. Bestalde, bigarren aukera da zazpi urtetan zehar

²⁶ GARRIGUES, J. *Curso de Derecho Mercantil I*, 7ª Ed. 1982, 381-382 eta 387 orri.

²⁷ Espainiako Kooperatiben Legea (27/1999 Legea) 59. artikulua: *Imputación de pérdidas*.

1. Los Estatutos deberán fijar los criterios para la compensación de las pérdidas, siendo válido imputarlas a una cuenta especial para su amortización con cargo a futuros resultados positivos, dentro del plazo máximo de siete años.

2. En la compensación de pérdidas la cooperativa habrá de sujetarse a las siguientes reglas:

a) A los fondos de reserva voluntarios, si existiesen, podrá imputarse la totalidad de las pérdidas.

b) Al fondo de reserva obligatorio podrán imputarse, como máximo, dependiendo del origen de las pérdidas, los porcentajes medios de los excedentes cooperativos o beneficios extracooperativos y extraordinarios que se hayan destinado a dicho fondo en los últimos cinco años o desde su constitución, si ésta no fuera anterior a dichos cinco años.

c) La cuantía no compensada con los fondos obligatorios y voluntarios se imputará a los socios en proporción a las operaciones, servicios o actividades realizadas por cada uno de ellos con la cooperativa. Si estas operaciones o servicios realizados fueran inferiores a los que como mínimo está obligado a realizar el socio conforme a lo establecido en el artículo 15.2.b), la imputación de las referidas pérdidas se efectuará en proporción a la actividad cooperativizada mínima obligatoria.

3. Las pérdidas imputadas a cada socio se satisfarán de alguna de las formas siguientes:

a) El socio podrá optar entre su abono directo o mediante deducciones en sus aportaciones al capital social o, en su caso, en cualquier inversión financiera del socio en la cooperativa que permita esta imputación, dentro del ejercicio siguiente a aquél en que se hubiera producido.

b) Con cargo a los retornos que puedan corresponder al socio en los siete años siguientes, si así lo acuerda la Asamblea General. Si quedasen pérdidas sin compensar, transcurrido dicho período, éstas deberán ser satisfechas por el socio en el plazo máximo de un mes a partir del requerimiento expreso formulado por el Consejo Rector.





bazkide bakoitzari itzulpen-kantitateak jartzea eta, hala ere konpentsatu gabeko galerak egongo balira, hilabeteko epea emango zaio bazkideari zenbatekoak itzultzeko.

Hori horrela, 15.3 artikuluan ezarritako ekarpenaren arabera erantzukizunaren ideia galtzen dela dirudi. Beraz, nolakoa da benetan bazkidearen erantzukizuna? Badirudi hasiera batean argi eta garbi dagoela erantzukizun mugatuaren ideia baina gero mugagabearen isla ageri da.

Zalantza argituz, Espainiako Kooperatiben Legearen 15.3 artikulua zorren erantzukizunaz ari dela esan behar da eta 59. artikulua berriz galeren inguruan. Beraz, zorreatik erantzukizuna bazkideekiko mugatua da. Baina modu orokorrean zorra eta galeraren artean bereizketarik egiten ez bada, esan al genezake bazkidearen erantzukizuna mugatua dela? Izan ere, galeren bat agertuko balitz erantzukizuna ez al litzateke mugagabea izango?

Sozietateak bazkide bakoitzari galera horiei aurre egiteko zenbateko bat ezarriko dio, Espainiako Kooperatiben Legeko 59.2.c) artikuluan oinarrituz²⁸, beraz, bazkidearen erantzukizuna zenbateko horretan egongo da jaso. Hori litzateke erregela orokorra. Baina gerta liteke, bazkideak zenbateko hori jarri aurretik sozietatea konkurtsoan erortzea eta orduan, ordaindu gabeko zatia konkurtsoko masa aktiboaren parte izatera pasatuko litzateke. Ondorioz, konkurtsoko administratzaileek kooperatibistei kantitate horren ordainketa egin dezatela eskatu ahal izango diete²⁹.

Bestalde, aipatu berri dugun bazkide bakoitzaren galerengatik erantzukizuna indibidualizatuta egongo da eta bakoitzak jakingo du zenbateko kantitatea jarri behar duen. Baina zenbateko hori zehaztu gabe dagoen kasuetarako egokitzen joko da konkurtsoko batzarrak ardura hori izatea³⁰.

Dena den, galeren hiru mota bereizi ditzakegu: a) *Kooperatibako galerak*: kooperatibak bere bazkideekin burutzen duen jardueratik zuzenean eratorria. b) *Kooperatiba kanpoko galerak*: kooperatibaren objektutik kanpo edo bazkideak ez direnekin egindako jardueretatik sortutako galerak. c) *Ez ohizko galerak*: aktibo mugiezinetik eratorritako ondasunen besterentzetik sortutakoa.

Bereizketa honen arabera, badirudi, galera guztiak ez direla bazkideei leporagarriak. Baina legedia Estatala eta zenbait Autonomiko kontuan hartzen baldin baditugu, ondorioztatzen da bazkideak galera guztiengatik erantzun behar duela eta ez goian aipatutako bereizketen kasuan kooperatibako galerekin bakarrik. Aldiz, beste zenbait Autonomia Erkidegoak dira eta hauetan, bazkideek kooperatibaren galeren aurrean bakarrik erantzun dute. (Autonomia Erkidego desberdinen arauketa bigarren puntuan landuko da).

²⁸ Espainiako Kooperatiben Legea (27/1999 Legea) 59.2 c) art.: *la cuantía no compensada con los fondos obligatorios y voluntarios se imputará a los socios en proporción a las operaciones, servicios o actividades realizadas por cada uno de ellos con la cooperativa. Si estas operaciones o servicios realizados fueran inferiores a los que como mínimo está obligado a realizar el socio conforme a lo establecido en el artículo 15.2.b), la imputación de las referidas pérdidas se efectuará en proporción a la actividad cooperativizada mínima obligatoria.*

²⁹ SUSO VIDAL J. M., 'La imputación de pérdidas al socio en la liquidación concursal de la cooperativa', *Estudios sobre la Ley concursal: libro homenaje a Manuel Olivencia*, Vol. 5, Marcial Pons, Madrid 2005, 4847-4877 orr.

³⁰ ALZOLA BERRIOZABALGOITIA I., 'La responsabilidad de los socios de las cooperativas', *legaltoday.com*, 2009.09.29: *a la hora de determinar el alcance de esta obligación, la asamblea general debe tener en cuenta lo dispuesto en la Ley; es decir, la imputación se realizará "en proporción a las operaciones, servicios y actividades" realizadas por cada uno de los socios con la cooperativa.*





Idea hauen aurrean doktrina ere banatuta aurkitzen da. Alde batetik, batzuen ustez bazkideak jasan behar duen galeren erantzukizunak ez dauka mugarik³¹. Beste batzuen iritziz³², bazkideek ez dute kooperatibaz kanpoko edo ez ohizko galerez erantzungo, hots, hauek ez baitute harremanik bazkidearekin.

Bazkideen erantzun behar duten galera motak alde batera utzita berriro sortzen zaigu galdera, izan ere, sozietateak fondoak ditu horiei aurre egin ahal izateko, baina gerta daiteke horiek nahikoa ez izatea eta orduan erantzukizuna bazkideen gain erortzea. Hori horrela, bazkidearen erantzukizun mugatua hautsi egiten al da?

Gure aldetik erantzuna ezezkoa da. Bazkideak galeren kasuan ordaindu beharreko zenbateko indibidualizatu bat izango du, baina zenbateko hori inoiz ezingo da egindako ekarpena baino gehiagokoa izan, hots, egindako ekarpena gainditzen ez duen bitartean erantzukizuna ez da mugagabe bilakatzen. Beraz, bazkidearen erantzukizunak mugatu izaten jarraituko du.

Aipatu dugun ideiari laguntzeko eta bazkidearen erantzukizun mugatua indartzeko Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2006ko otsaileko epaia erreparatuko dugu³³. Honela dio: *La imputación de las pérdidas en caso de cooperativas de responsabilidad limitada tiene el límite de la aportación de cada socio al capital social, ya que, en el supuesto contrario, la responsabilidad limitada se convertiría en una entelequia.*

Idea bera biltzen du doktrinaren sektore batek. Hala, Villafañezek dio³⁴: *La imputación de las pérdidas de art 59 LCoop es que éstas se imputarán a los socios cuando las reservas no sean suficientes, pero siempre con el límite de las aportaciones al capital.(...) la responsabilidad legalmente establecida estaría efectivamente limitada a las aportaciones, sin perjuicio de posteriores acuerdos que se adopten en la Asamblea General o por parte del socio sobre imputación de pérdidas a cargo de otras partidas de los que derivaría una deuda interna, que en su caso se incluiría en la masa activa.*

Abiapuntu hau oinarritzat hartuz, bazkideen erantzukizuna bai galera, bai zorren aurrean mugatua izango da. Zorren aurrean bazkideak egin duen ekarpenaren arabera erantzun beharra dauka eta, nahiz eta zenbateko hori ordaindu gabe izan, zenbateko horretantxe bakarrik izango da erantzule. Azken batean, ekarpenek sozietatearen ondarea osatzen dutenez, zorrei aurre egiten lagundu behar dute.

³¹ Horren aldekoak dira besteak beste, MATEO BLANCO J., *REVESCO*, 'El Retorno cooperativo', Zaragoza, 2.Ed, 2003, CANALEJO P., *El nuevo derecho cooperativo Español*, Digesa, Madril, 1979, 72. orr, VICENT CHULIÁ F., *Ley general de cooperativas, Tomo XX de los Comentarios a al Código de comercio y Legislación mercantil Especial*, vol. 3º, Madril, 1994, 372 orr eta hh. VICENT CHULIÁ F., *op cit*, 2012, 1186-1191 orri., FAJARDO GARCÍA I. G., *La gestión económica de las cooperativas: responsabilidad de los socios*, Tecnos, Confederación de cooperativas de la comunidad Valenziana, Capítulo V, 1997, 197-245 orri., PANIAGUA ZURERA, 'Mutualidad y lucro en la sociedad cooperativa', en: M. OLIVENCIA, C. FERNÁNDEZ-NOVOA, R.JIMÉNEZ DE PARGA (Dir.) eta G. JIMÉNEZ SÁNCHEZ (Coor.) *Las sociedades mutuas de seguros y mutualidades de previsión social*. Vol. 1º del Tomo XII del Tratado de Derecho Mercantil, McGraw-Hill, Madril-Barcelona, 1997, 1-537 orr.

³² Aurka ageri dira berriz, ELENA DÍAZ F., 'Ideas sobre una posible interpretación de las pérdidas del pasivo según la vigente ley', *Estudios cooperativos*, núm. 36-38, 1975-1976, 190 orri, LARRAÑAGA J., *Análisis de la Legislación Vasca sobre cooperativas*. C. L. P. San Sebastián, Donostia, 1985, 34 orr., GOMEZA VILLA, *Comentarios a la ley de cooperativas 27/1999 de 16 de julio*, Vol I, Madril, 2001, 294 orr eta hh. GADEA E., SACRISTÁN F., VARGAS C., *Régimen jurídico de la sociedad cooperativa del siglo XXI, realidad actual y propuestas de reforma*, Madril, 2009, 1-696 orr.

³³ Tribunal Superior de Justicia de Cataluña, Sala 1ª, Sentencia núm 5/2006, de 9 febrero, Aranzadi RJ 2006/6026.

³⁴ VILLAFÁÑEZ PÉREZ I., 'Presupuestos del concurso de la cooperativa', *Pérdidas, disolución y concurso en sociedades cooperativas*, Capítulo V, Marcial Pons, 2012, 133 orr eta hh.





Plus hori izateak hasiera batean sozietatearen galerei aurre egitea dela dirudi, eta beraz, bazkideak ez zertan jasan beharrekoa. Baina, galera horien jatorria kooperatibak bere kideekin duen harremanetik dator, hau da, azken batean bazkideak bere lana burutzean sortuak izan diren galerak direla esan genezake eta ez sozietate kooperatiba berarenak.

Modu horretan, bazkidearen erantzukizunaren izaera mugagabea izatera pasatzen da, hau da, hasiera batean egindako ekarpenaren zenbatekoa gainditu eta gehiagorekin erantzuten du eta pentsa daiteke ere, bazkidearen ondare osoan eragina izan dezakeela. Baina orduan, berriz datorkigu galdera burura: bazkidearen erantzukizuna mugatua al da? ala mugagabea?

Galdera honi erantzuteko Doktrinaren zatirik nagusienak jada indarrean ez dagoen Espainiako Kooperatiben Lege Orokorraren 3/1987 arabera bi erantzukizun mota bereiztu izan ditu³⁵: alde batetik, “*ad extra*” eta bestetik, “*ad intra*”.

“*Ad extra*” erantzukizuna sozietateak hartzekodunekin dituen zorregatik erantzukizuna azaltzeko erabiltzen da. Esan genezake bazkideak hartzen duen erantzukizuna dela obligazio sozialak ez betetzeagatik eta, azken batean, erantzukizun hau ekarpena egindako zenbatekoari lotuta egongo litzatekeela.

“*Ad intra*” erantzukizunak berriz, bazkideak sozietate berarekin duen erantzukizunari erreferentzia egiten dio. “*Ad extra*” erantzukizunarekin desberdinduz, esan genezake erantzukizun-mota hau mugagabea dela.

Nolabait esateko, bazkideak kooperatibaren abantaila jasotzen du modu zuzen batean, hots, kooperatiba eta bazkidearen artean dagoen harremana dela eta edo zeharkako moduan, Batzarraren errekonozimenduaren bidez gauzatzen dena, bazkidearen itzulketa-eskubidea dela eta. Ordainean bazkideak desabantailaren bat jasan beharko du, hain zuzen ere, kooperatibaren galerak estaltzeko erantzukizuna gain hartzea.

Alegia, bazkideak modu zuzenean edo zeharkakoan parte hartuko du kooperatibaren jardura sozialaren emaitzetan, onak edo txarrak izan daitezkeenak. Baina, beti ere, kontuan izan beharko da kooperatibaren jardueretan bere parte-hartzea zenbatekoa den.

Doktrinaren gehiengoaren iritziz, galeren aurrean modu mugagabean erantzun beharko du bazkideak³⁶. Hau da, bazkideak ezingo du bere erantzukizuna ekidin, ezta baja emanda ere, kasu horretan ez litzatekeelako justifikatutako baja izango. Hala ere, beste batzuk, ideia horren aurka agertu dira³⁷. Hauen ustetan, erantzukizun mugagabearen izaera legearen kontrakoa da, izan ere, legez ezartzen da bazkideen erantzukizuna mugatua dela. Honela jaso du Kantabriako Kooperatiben Legeak (6/2013 Legea) 72.2 azken paragrafoan³⁸: *las pérdidas se imputarán al socio hasta el límite de sus aportaciones al capital social.*

³⁵ VICENT CHULIÁ, F., *op cit*, 2012, 1186-1191 orr.

³⁶ Horren aldekoak dira besteak beste, MATEO BLANCO J., *op cit*, CANALEJO P., *op cit*, 72 orr, VICENT CHULIÁ F., *op. cit*, 1994, 372 orr eta hh. VICENT CHULIÁ, F., *op. cit*, 2012, 1186-1191 orr., FAJARDO GARCÍA I. G., *op cit*, 197-245 orr., PANIAGUA ZURERA, *op cit*, 1-537 orr.

³⁷ Kontrako iritzia dutenak berriz, ELENA DÍAZ F., *op cit*, 190 orr., LARRAÑAGA, J., *op cit* 34 orr, GOMEZA VILLA, *op cit*, 294.orr eta hh, GADEA E., SACRISTÁN F., VARGAS C., *op. cit*, 1-696 orr.

³⁸ Ley 6/2013, de 6 de noviembre, de Cooperativas de Cantabria, BOE núm. 284, de 27 de noviembre de 2013.





Modu honetan, bazkidea berak egindako ekarpenetik haranago ordaintzearen aurka ager daiteke.

Doktrinaren gutxiengoaren ideia zentzudunagotzat jotzen da, izan ere, erabaki Estatutarioek edo bere kasuan, Batzarrak ezin dutelako legearen aurka aritu. Modu honetan, galera sozialak, ondarean galera ekarriko luke eta ikusi beharko litzateke ea ondareko galera horrek sozietateari eragiten dion edo bazkideari. Gainera, aztertu beharko da indar handiko egoera edo ustekabeko egoerarik izan ote den. Azken batean, esan bezala galera sozial batek zor sozial bat ekarriko badu, legez ezarritako baldintza beteaz, ezin izango du bazkideak modu mugagabe batean erantzun.

Honen aurrean pentsa daiteke Estatutuetan erantzukizun mugagabearen ideia jasotzen baldin bada eta bazkideak hori onartu badu, ezin izango duela horren aurrean aurkapean azaldu. Baina hori ezin esan daiteke horrela denik. Izan ere, bazkideak estatutuak onartzerakoan legez ezarritako erantzukizun mugatua onartzen du eta Batzarraren erabakiak hartzerako aukeren barruan ideia hori dagoela ikusten du, baina horrek ez du esan nahi, horrekin ados dagoenik.

Batzarrak bazkidearen erantzukizuna zabaltzearen ideia ezarriko balu bazkideak horren aurka agertu beharko luke. Bestela, hala egingo ez balu, bere erantzukizuna martxan jarriko litzateke eta erantzukizun hori hiru modutan gauzatzeko aukera izango luke: (1) derrama jakina onartuz; (2) etorkizuneko itzulkinari leporatuz; (3) egindako ekarpenen kentze bidez³⁹.

Argitu behar da azken hau aukeratu ezker, egin beharreko ekarpen minimoaren muga errespetatu beharko dela, hau da, kentzea ezingo dela aurrera eraman egin beharreko ekarpen minimoaren muga gainditzen badu. Izan ere, muga horrek bazkide izaera adierazten du, hori gabe bazkide izaera galdu egingo luke. Hala ere, batek erabaki dezake nahiago duela erantzukizuna bete ahal izateko muga gainditu eta bazkide izaera galtzea, eta erantzukizunarekin amaituz. Orduan gerta daiteke, hori eginagatik ere, oraindik erantzukizuna kitatua ez egotea eta beraz, erantzuten jarraitu behar izatea.

Baina ezin daiteke ezinbestean ulertu bazkideek izan behar dutela galeren erantzule, bazkideen gehiengoak Batzarrak hartutako erabakiak onartzen dituelako. Azken batean, Batzarra bazkideen onarpenez eraturikoa da eta ulertzen da bertako erabakiekin ados egon behar dutela baina horrek ez du zertan beti horrela izan. Hala ere, noski ados ez egondako kasuetan garaiz mugitu behar da aurkapena adierazteko, bestela gestoreen erabakia ontzat ematen arituko dira bazkideak⁴⁰. Hau beti izango da posible izan ere, jokoan ez dago interes orokorra, interes partikularra baizik.

Laburbilduz, esan behar da Espainiako Kooperatiben Legean 15.3 artikuluan bazkideen erantzukizun mugatua ezartzen dela eta beraz, bazkide bakoitzak egindako ekarpenaren arabera jardungo duela. Baina bestalde, 59.3 artikulua aukera ikusten du bazkide bakoitzari galerengatik zenbateko bat ezartzeko eta modu horretan horiei aurre egiteko.

³⁹ http://impresionesdeunjurista.blogspot.com.es/2013/11/01_archive.html (2014-05-31n ikusia).

“Podrá optar el pago de su responsabilidad, como es sabido, a través de una derrama específica, de imputar a retornos futuros o de deducciones en sus aportaciones suscritas y desembolsadas”.

⁴⁰ MARTÍNEZ SEGOVIA F. J., *op. cit.*, 2013.





Bi artikulu hauen artean sortu daitekeen zalantza argitzeko, esan, erantzukizuna beti izango dela mugatua Autonomia Erkidego bakoitzean bestelakorik xedatzen ez bada behintzat, eta beraz, bai zorren aurrean bai galeren aurrean egindako ekarpenaren arabera erantzungo duela bazkideak. Galerak egonagatik ere, ezarriko zaion zenbatekoa ekarpen horretara mugatzen da.

Hala ere, gerta liteke sortutako galerak bazkide berarenak izatea, hau da, sozietatearekin loturarik ez izatea. Kasu horietan bazkideari ezarritako erantzukizun-mota alde batera utziko da eta ezin bestean modu mugagabean erantzungo du, berak sortutako galerak direlako. Horrela jasotzen da Jaengo Audientzia Probintzialeko 2011ko apirilko epaian⁴¹: *no podemos olvidar que se trata de unas deudas de los socios de la cooperativa... y no deudas de la cooperativa, por tanto no puede quedar limitada por sus aportaciones al capital social.*

2. Kasu berezia, baja eman duen bazkidearen erantzukizuna

Gai honen inguruan bada kasu bat eztabaidagarria dena, alegia, Kooperatibako bazkide batek baja ematen duenean erantzukizuna izaten jarraitzen ote duen edo ez duenaren arazoa. Espainiako Kooperatiben Legeko 15.4 artikuluan ezartzen da baja ematen duen bazkideak bere ondare pertsonalarekin erantzuten duela zorren aurrean, berak egindako ekarpenaren arabera, baja eman eta hurrengo bost urteetan⁴². Azken batean xedatzen dena da, kooperatibako bazkide izan den batek baja eman eta ondorengo bost urtetan erantzukizuna izaten jarraituko duela baja eman aurretik sortutako obligazioengatik.

Aurreko atalean adierazitakoaren ildotik⁴³, baja eman duen bazkideak hurrengo bost urtetan erantzukizuna izaten jarraituko du, baina beti ere bere erantzukizun mugatua izango dela esan daiteke, hots, egin duen ekarpenaren arabera. Errealitatean gerta daitekeen egoera da hau, hots, kooperatibako bazkide batek sozietatea utzi nahi izatea edo hainbat arrazoï medio kaleratua izatea. Kasu horretan bazkideak berak kapital sozialera egin duen ekarpena itzultzea eskatuko du, hau da, sozietatea uzteagatik bazkideari jarri duen zenbatekoa berreskuratzea dagokio. Errenboltso deitzen zaio ekintza horri, baina esan behar da bazkideak ez duela egindako ekarpenaren zenbatekoa ehuneko ehunetan eskuratzen. Hala ere, hurrengo bost urtetan baja eman aurreko obligazio batengatik erantzukizuna sortzen bada, bere ekarpenaren zenbateko horrekin erantzun beharko du.

Bazkideak egindako ekarpen itzultzearen eskaeran ezin dezake zenbateko hori baino gehiago eskatu, izan ere, horrek bide gabeko aberastea ekarriko luke eta kooperatibako bazkideentzat galera handia suposatuko luke. Ikus Jaengo Audientzia Probintzialeko 2011ko apirilko epaian⁴⁴ esaten dena: *en caso contrario existiría un enriquecimiento injusto de los mismos y un perjuicio para los socios que permanecen en la cooperativa, quienes tendrían que hacerse cargo de deuda ajena, la de los socios que se van.*

⁴¹ Audiencia Provincial de Jaén, (Sección 1ª) Sentencia, núm 100/2011 de 28 abril.

⁴² Espainiako Kooperatiben Legea (27/1999 Legea) 15.4 art.: *no obstante, el socio que cause baja en la cooperativa responderá personalmente por las deudas sociales, previa exclusión del haber social, durante cinco años desde la pérdida de su condición de socio, por las obligaciones contraídas por la cooperativa con anterioridad a su baja, hasta el importe reembolsado de sus aportaciones al capital social.*

⁴³ VILLAFÁÑEZ PÉREZ I., *Op. Cit.*, 133 orr eta hh. *Los socios que causan baja tienen responsabilidad subsidiaria y personal por las deudas sociales durante cinco años desde la pérdida de la condición de socio por las obligaciones contraídas por la cooperativa con anterioridad a su baja, responsabilidad limitada, eso sí, al importe reembolsado a sus aportaciones.*

⁴⁴ Audiencia Provincial de Jaén, (Sección 1ª) Sentencia, núm 100/2011 de 28 abril.





Erantzukizun-mota hau Espainiako legedian eta, oro har, Autonomia Erkidego guztiek jasotzen duten araudia da. Salbuespen bakarra Euskadiko Kooperatiben legedia da⁴⁵. Bertako Legeko (4/1993 Legea) 56.2 artikuluan⁴⁶ ezartzen da bazkideari errenboltsatu behar zaion zenbateko zehaztu bada, baja ematen duten bazkideen ez dutela inongo erantzukizunik izango baja eman aurretik kooperatibak hartutako obligazioen gainean.

Bazkide horren erantzukizuna subsidiarioa izango da, Espainiako Kooperatiben legedia orokorrak adierazten duen bezala, “*previa excusión del haber social*”, hau da, lehendabizi sozietatearen ondareaz baliatu beharko da eta ondoren jo baja eman duen bazkidearengana. Kooperatibak kaudimengabezia erortzen direnean, hitzarmena sinatu ondoren eskatu ahal izango diete bazkideei erantzukizuna, ez du balioko baldintza hori gabe erantzukizuna eskatzeak.

Kasu berezi honen aurrean bada, ordea, argitu beharreko beste arazo bat. Bazkide batek baja ematen duenean eta hurrengo bost urteetan ezartzen zaion erantzukizuna bera bazkide zen garaian kooperatibak hartutako obligazioetatik sortutakoa ote den edota kooperatibak lehenagotik hartutakoez ere erantzun beharra duen.

Batzuen ustez⁴⁷, bazkideak bera bazkide gisa sartu eta hortik aurrera hartutako obligazioez erantzun beharko luke. Baina ontzat ematen dute ere lehenagoko obligazioetatik sortu daitekeenaz erantzutea, beti ere, bazkide zen unean jarduera horien berri baldin bazuen, hots, hartutako obligazioaren berri baldin bazuen.

Bestalde, indarrean dagoen Espainiako Kooperatiben Legeko (27/1999 legea) 15.4 artikulua araber, ezartzen den baldintza bakarra baja eman duen bazkideak erantzukizuna izateko, bazkide izan ondoren sortutako erantzukizunak ez izatea da. Halaxe esaten da literalki: *por las obligaciones contraídas por la cooperativa con anterioridad a su baja*. Hau da, nahikoa da bazkide izatea, une horretan sortutako obligazioez eta aurrez hartutakoez erantzuteko baina ez ondorengoez.

Beraz, bazkideak bazkide izan zen unean sortutako obligazioez erantzungo du eta baita kooperatibak lehenago hartutakoengandik sortu daitezkeenengatik ere. Izan ere, zorren orde z irabaziak izango balira, kasu horretan, irabazi horietaz baliatuko litzateke bazkidea nahiz eta aurrez hartutako obligaziotik sortutako irabaziak izan. Gainera, bazkide zen garaian ezarri zitzaion erantzukizun motaren araber erantzungo du. Hala, erantzukizun mugatuaren erregela orokorra jasotzen da Espainiako Legean, baina gerta liteke erantzukizuna zabaldua izatea Autonomia Erkidegoko Estatutuen bidez eta orduan erantzukizun mugagabea ezarri bazitzaion modu horretan erantzungo du. Kasu berezi honen inguruko arazoekin amaitzeko esan, bazkide hauetakoren batek baja ematen badu, bere erantzukizuna bazkide zen uneko berbera izango da eta ezingo da zenbatekorik erantsi. Erantzukizun hau bost urteko epe luza daiteke. Baina lehen esan bezala, aipatzekoa da erantzukizun-mota hau ez dela jaso Euskadiko Autonomia Erkidegoan.

⁴⁵ Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legea, ekainaren 24koa, EHAO, zenb. 1993135, 1993ko maiatzaren 3 koa.

⁴⁶ Euskadiko Kooperatiben Legea (4/1993 Legea) 56.2 art.: *una vez fijado el importe de las aportaciones a reembolsar, los socios que causen baja, no tendrán responsabilidad alguna por las deudas que hubiese contraído la cooperativa con anterioridad a su baja*.

⁴⁷ CANALEJO P., *op cit*, 196-197 orr.





III. Autonomia-erkidegoetako sistema desberdinak

Espainiako 1978ko Konstituzioan kooperatiben aipamena egiten da. Hain zuzen ere, bere 129.2 artikuluan esaten da zehazki: *Botere publikoek eragingarritasunez bultzatuko dituzte enpresetan parte hartzeko era desberdinak, eta, legeria egokiaren bidez, kooperatiba-sozietateak sustatuko dituzte. Halaber, neurriak hartuko dituzte, langileek ekoi-zhiteen gaineko jabetza eskura dezaten.*

Bestalde, bada kooperatiben inguruan gertakari berezi bat. Alegia, 148 eta 149. artikuluetan Estatu eta Autonomia Erkidegoen arteko eskumenen banaketa egiten denean, banaketa horretan ez da kooperatiben gaineko eskuduntzaren inguruan aipamen espresik egiten. Hau honela, Autonomia Erkidegoek aukera aprobetxatu eta beraien Estatutuak egiterakoan kooperatiben gaineko eskumen eskusiboa hartu zuten Espainiako Konstituzioak 149.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hasiera batean, Euskadi, Katalunia, Andaluzia, Valentzia eta Nafarroa izan ziren eskumen hau beraien Estatutuetan jaso zutenak eta ondoren gainerako Autonomia Erkidego guztiek berdina egin zuten⁴⁸.

Gaur eguneko egoera Espainiako Estatu mailan honakoa da beraz: batetik Estatu mailako Legedia Orokorra dugu eta bestetik Autonomia Erkidegoen beste 16 legedia (Kanariak Irltako legedia proposamena martxan da)⁴⁹. Esan bezala, hasiera batean bost Autonomia Erkidegok bakarrik zuten eskuduntza eskusiboaren onarpena eta ondoren 9/1992 Lege Organikoaren⁵⁰ bitartez Asturias, Kantabria, Murtzia, Aragoi, Extremadura, Balear Uharteak, Madril, Gaztela Mantxa eta Gaztela Lehoik bereganatu zuten eskuduntza hori. Ondoren Galiziak, 16/1995 Lege Organiko⁵¹ bidez, eta azkenik Kanariar Uharteek, 4/1996 Lege Organikoz⁵².

Baina aipatutako eskuduntza ez da beti Erkidegoen eskusibotasunekoa izan. 1987ko Kooperatiben Legeak⁵³ Estatuaren eskuduntzen barruan gordetzen zuen kooperatiben araudia, baldin eta kooperatiba batek bere jardura Autonomia Erkidegotik haranago ere burutzen bazuen, hau da, sozietate horren jarduerak bere Autonomia Erkidego baino haranago bazeuden.

Ondoren 1999.urtean gaur egun indarrean dagoen legedia onartu zen, hau da, Kooperatiben gaineko eskuduntza eskusiboa Autonomia Erkidegoena izatea. Eta legedia hau aplikagarri izango zaio Autonomia Erkidego bat baino gehiagotan diharduen kooperatibari ere. Salbuespenak, Erkidegoren batean jardura nagusiki burutzen duenean eta nagusiki kooperatibako jarduerak Ceuta eta Melillan burutzen dituen izango dira.

⁴⁸ ATIENZA MACÍAS E., MERINO MAR J.A, RUIZ DE HUYNDOBRO eta DE LAS MUÑECAS E.G., 'Derecho de las Sociedades Cooperativas en Euskadi: Un análisis sobre su estructura orgánica y la política cooperativa de los últimos ejercicios', *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo* 38, Publicaciones de la Universidad de Deusto, Bilbao, 2004, 105-191.orr.

⁴⁹ Boletín Oficial de Canarias núm. 212, 4 de noviembre de 2013. <http://www.gobcan.es/boc/2013/212/index.html> (2014-05-28an ikusia).

⁵⁰ Ley Orgánica 9/1992, de 23 de diciembre, de transferencia de competencias a Comunidades Autónomas que accedieron a la autonomía por la vía del artículo 143 de la Constitución, *BOE* núm. 308, 24 de diciembre de 1992.

⁵¹ Ley Orgánica 16/1995, de 27 de diciembre, de 1995 de Transferencia de Competencias a la Comunidad Autónoma Gallega, *BOE* núm. 310, 28 de diciembre de 1995.

⁵² Ley Orgánica 4/1996, de 30 de diciembre, de reforma de la Ley Orgánica 10/1982, de 10 de agosto, de Estatuto de Autonomía de Canarias, *BOE* núm. 315, 31 de diciembre de 1996.

⁵³ Ley 3/1987, de 2 de abril, General de Cooperativas, *BOE* núm. 84, 8 de abril de 1987.



Eskuduntzen banaketa hau ikusirik esan behar da Espainiako Estatuko legedia Autonomia Erkidegoenaren osagarria izango dela. Gure gaiari dagokionez, Autonomia-Erkidegoen arauketaren barruan, bazkidearen zorreatiko erantzukizuna, galeren aurreko erantzukizuna eta baja-egoera arautzen dira. Hauek orokorrean Espainiako Estatu mailako legediarekin antzekotasunak biltzen badituzte ere, zenbait berezitasun aurki daitezke.

Estatu mailako legedian esan dugu sozietate kooperatiben erantzukizuna ez dela guztiz mugagabea, oraingo eta gero ondarearekin erantzun beharko dutela, baina beti ere, nahitaezkoak diren fondoak errespetatuz. Ideia honen aurrean zenbait Erkidegotan ere jasotzen da kooperatibaren erantzukizuna ez dela mugagabea izango. Hots, hauen arabera, kooperatibaren eraketa-uneke eta promozioeko fondoek ez dute erantzungo⁵⁴.

Horren adibide da Madrileko 1999ko Kooperatiben legeko 5. artikulua⁵⁵: *La Cooperativa responderá de sus deudas con todo su patrimonio presente y futuro, excepto el correspondiente a la reserva de educación y promoción cooperativa, que sólo responderá de las obligaciones estipuladas para el cumplimiento de sus fines.* Ideia berdina jasotzen dute baita Valentziako legeak⁵⁶, Murtziakoak⁵⁷, Gaztela Mantxakoak⁵⁸ eta Andaluziakoak⁵⁹.

Bestalde, bazkideen erantzukizunaren eremuari helduz, ikusi dugu Estatuko Legean (27/1999 Legea) erantzukizun mugatua biltzen dela, baina horren inguruan arazoak planteatzen dira Autonomia Erkidego mailan ere. Beraien artean arauketa desberdina egitea posible denez, bereizketak egitea ere posible da. Izan ere, zenbait Erkidegok bazkideen erantzukizuna Estatu mailan aitortutako erantzukizun mugatua dela errespetatzen duten bezala, beste batzuk, erantzukizun mugagabea xedatzeko aukera aurreikusten dute. Horrek, bazkideen erantzukizunaren norainokotasunaren eztabaida irekitzea dakar Autonomia Erkidegoen eremuan ere. Hala ere esan behar da, Estatutuetan ez bada erantzukizunaren inguruan ezer xedatu erantzukizuna mugatua izango dela⁶⁰.

Batetik, bazkideen erantzukizuna guztiz mugatua jasotzen duen Autonomia Erkidegoa dago Andaluzia esaterako. Izan ere, ez dute beraien legedian bazkideen

⁵⁴ GRIMALDOS GARCÍA M.I., 'El concurso de la cooperativa y su repercusión en el patrimonio personal de los socios', *Revista de Derecho Concursal y Paraconcursal* 11, 2009, 323. Orri.

⁵⁵ Ley 4/1999, de 30 de marzo, de Cooperativas de la Comunidad de Madrid, BOE núm. 131, de 2 junio de 1999.

⁵⁶ Ley 8/2003, de 24 de marzo, de Cooperativas de la Comunidad Valenciana, BOE núm. 87, de 11 de abril de 2003, art 4.1: *La Cooperativa responderá de sus deudas con todo su patrimonio presente y futuro, excepto el correspondiente a la reserva de educación y promoción cooperativa, que sólo responderá de las obligaciones estipuladas para el cumplimiento de sus fines.*

⁵⁷ Ley 8/2006, de 16 de noviembre, de Sociedades Cooperativas, de la Región de Murcia, BOE núm. 11, 9 de mayo del 2007. art 4.1: *la sociedad cooperativa responderá de sus deudas con todo su patrimonio, excepto el correspondiente al Fondo de Formación y Promoción que sólo responderá de las obligaciones estipuladas para el cumplimiento de sus fines. El Fondo de Reserva Obligatorio es inembargable durante toda la vida de la sociedad cooperativa, sin perjuicio, en todo caso, de su ejecutabilidad en fase de liquidación de la sociedad cooperativa.*

⁵⁸ Ley 11/2010, de 4 de noviembre, de Cooperativas de Castilla-La Mancha, BOE núm. 37, 12 de febrero de 2011, art.7.3: *La cooperativa responderá de sus deudas con todo su patrimonio presente y futuro, con excepción de la parte correspondiente al fondo de promoción y formación cooperativa, que sólo responderá de las obligaciones estipuladas para el cumplimiento de sus fines.*

⁵⁹ Ley 14/2011, de 23 de diciembre, de Sociedades Cooperativas Andaluzas, BOE núm. 17, de 20 de enero de 2012, art 53.1: *La sociedad cooperativa responderá de sus deudas con todo su patrimonio presente y futuro, excepto el correspondiente al Fondo de Formación y Sostenibilidad, que solo responderá de las obligaciones contraídas para el cumplimiento de sus fines.*

⁶⁰ ARCO ÁLVAREZ J.L., 'Teoría y práctica de las sociedades cooperativas', *Tema de estudio de los Curso I, II y III*, Universidad Politécnica de Valencia, 1974, 55. orr: *la responsabilidad de los socios frente a terceros por las operaciones sociales podrá ser limitada o ilimitada según determinen los Estatutos. En la duda o ante silencio, debe entenderse que la responsabilidad es limitada.*





erantzukizuna zabaltzeko aukerarik aurreikusten. Horrela ageri da ideia hori bera Jaengo Audientzia Probintzialeko 1997ko iraileko epaian⁶¹: *no puede obviarse lo dispuesto en el artículo 5 de la Ley de Cooperativas Andaluzas, en el sentido de que la responsabilidad del socio por las deudas de la Cooperativa quedará limitada a sus aportaciones suscritas al capital social, estén o no desembolsadas.*

Kasu honetan bazkideek kooperatibaren galeren aurrean ere erantzukizun mugatua izaten jarraituko dute, hau da, ez dute beren ekarpena baino zenbateko handiagoarekin erantzun beharrik izango. Hots, galeren aurrean erantzungo dute baina egindako ekarpenaren arabera⁶².

Bestetik, gerta liteke Autonomia Erkidegoko legedian kooperatibako bazkideen erantzukizun mugatua jasotzea baina, esan bezala, erantzukizuna zabaltzeko aukera ere gordetzea. Modu horretan, kooperatibako galeren aurrean sortzen den erantzukizuna bestelakoa da, bai eta zorren aurrean ere. Kooperatibaren estatutuetan bazkidearen erantzukizun mugagabea onartzen bada, bazkideak modu horretan erantzun beharko du. Bestalde, kooperatibaren zorren aurrean bazkidearen erantzukizuna mugatua izanagatik ere, erantzukizuna zabaldu egin bada zirkunstantziaren bat gertatu izanagatik, eta une horretan galerengatik erantzukizuna sortuko balitzake, orduan bai, bazkideak modu mugagabean erantzungo lukeela eta ez litzatekeela arau-hausterik egongo. Izan ere, bertan ezarritakoa errespetatuz sortu da erantzukizun mugagabea. Honen adibide ditugu, Katalunia eta Nafarroako legeak⁶³.

Madrilgo legean ere, irizpide nagusi bezala bazkideen erantzukizuna mugatua da baina aukera ematen da erantzukizunaren eremua zabaltzeko kooperatibaren Estatutuetan horrela jasotzen bada. Honela diote bertako 5.2 eta 5.3 artikuluek: 2. *La responsabilidad de los socios por las deudas sociales quedará limitada al importe nominal de las aportaciones al capital social.* 3. *Si los Estatutos lo prevén, podrá exigirse una responsabilidad adicional del socio para el caso de insolvencia de la Cooperativa o una responsabilidad ilimitada, por las deudas sociales. En estos casos, la responsabilidad entre los socios será mancomunada salvo previsión contraria en los Estatutos.*⁶⁴

Beraz, Kooperatibaren kaudimengabezia egoeran posible izango da erantzukizuna mugagabe bilakatzea. Egoera hau suertatuz gero bazkideen erantzukizuna mankomunatua izango da. Hau da, bazkide bakoitzari kaudimengabezia egoerari aurre egiteko erantzukizuna zabalduko zaio, baina modu proportzional batean, hau da, bazkide guztien artean zati berdinak egingo dira eta bazkide bakoitzak zati berdinean batez ordaindu beharko du.

Valentziako legedia erreparatzen badugu, Madrilgoaren ia ideia berdina jasotzen du baina aukera aurreikusten da Estatutuetan bazkideek erantzukizun mankomunatua izan

⁶¹ Audiencia provincial de Jaén (Sección 1ª) Sentencia núm. 276/1997 de 15 de septiembre.

⁶² Andaluziako Kooperatiben Legea (14/2011 Legea), 53.2 art.: *La responsabilidad de los socios y socias por las deudas sociales quedará limitada al importe de las aportaciones suscritas al capital social, estén o no desembolsadas.* Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legea, ekainaren 24koa, EHAO zenb. 1993135, 1993ko maiatzaren 3an. 56.1 art. *Los socios no responderán personalmente de las deudas sociales. Su responsabilidad por dichas deudas estará limitada a las aportaciones al capital social que hubieran suscrito.*

⁶³ Ikus Ley 18/2002, de 5 de julio, de Cooperativas de Catalunya, BOE núm. 179, de 27 de julio de 2002, art. 54: *Salvo que los estatutos sociales dispongan lo contrario, los socios han de responder de las deudas sociales de forma limitada a las aportaciones al capital social suscritas, tanto si son desembolsadas como si no.* Ikus baita ere Ley Foral 14/2006, de 11 de diciembre, de Cooperativas de Navarra, BOE núm. 4, 4 de enero de 2007, art 8.1: *la responsabilidad de los socios podrá ser limitada o ilimitada según dispongan los estatutos. A falta de disposición expresa, la responsabilidad de los socios por las deudas sociales frente a terceros estará limitada a las aportaciones al capital social suscritas, con independencia de que estén o no desembolsadas.*

⁶⁴ Madrilgo Kooperatiben Legea (4/1999 legea) 5.2 eta 5.3 art.



beharrean solidarioa izateko⁶⁵. Zentzu bereko arauketa egiten du Gaztela Mantxako Legeak ere⁶⁶.

Galeren eremuan beraz, batetik, kooperatibaren erantzukizuna dago baina hau nahikoa ez denean bazkideengana jotzen da, Estatutuko araudiaren erantzukizun mugatuaren ideia zalantzan jarriz. Hori argitzeko arrazoitu da, galeren aurrean bazkideek egindako ekarpenaren arabera erantzungo dutela eta beraz, ez dela Legean jasotako ideia hausten.

Galerengatik erantzun behar denean bazkideak egin duen ekarpenaren arabera erantzungo du erantzukizuna mugatua onartzen denean, hau horrela ez bada, hau da aitortu zaion erantzukizuna mugagabea baldin bada erantzukizun mugagabea izango du bazkideak. Izan ere, Erkidego bakoitzak aukera dauka bere erantzukizun-mota aukeratzeko eta azaldu den bezala, beraien artean bi talde egitea posible da. Bazkideen erantzukizun mugatua duten Autonomia Erkidegoak eta erantzukizun mugagabea dutenak.

Galeren barruan bereizketa egin dugu aurrez, hain zuzen ere, kooperatibako galerak, kooperatibaz kanpoko galerak eta ez ohizko galerak bereizi ditugu. Bereizketa honen arabera badirudi galera guztiak ez direla bazkideen eskutik erantzun beharrekoak izango. Zenbait Erkidego ideia horren aldekoak izanagatik ere, beste zenbait Autonomia Erkidegoren arauketan bereizketa hori ez da ematen. Horren adibidea dugu Valentziako Erkidegoa, non, ez den galeren artean bereizketarik egiten. Gauzak horrela, posible da, Autonomia Erkidegoetako legedien artean bi edo hiru multzo egitea kooperatibako galeren artean bereizketak egitearen arabera⁶⁷.

Alde batetik, Espainiako Kooperatiben legean jasotzen den bezala, galeren artean desberdintasunik egiten ez duten Autonomia Erkidegoak ditugu, esaterako, Euskadikoa, Nafarroakoa, Galiziakoa, Gaztela lehoikoa, Gaztela Mantxakoa, Kataluniakoa eta Balear Irletakoa.

Bestalde, Valentziako, Extremadurako, Aragoiko, Andaluziako kooperatiben legediek bereizi egiten dituzte ez ohizko eta kooperatibaz kanpoko galerak eta hauek ez dituzte kontuan hartzen. Hauek bazkideei leporagarriak ezin izan daitezkeela diote eta bazkideek soilik, kooperatibako galeren erantzule direla, hau da, bazkideek burututako jardueretatik sortutako galeren erantzule soilik. Bazkideen erantzukizuna kooperatibako galeren eremura zuzentzen da soilik eta ondorioz, likidatutako zenbatekoaren arabera erantzungo dute.

⁶⁵ Valentziako Kooperatiben Legea (8/2003 Legea), 4.2 art.: *la responsabilidad de los socios por las deudas sociales quedará limitada al importe nominal de las aportaciones al capital social. Los estatutos podrán establecer una responsabilidad adicional para el caso de insolvencia de la cooperativa. La responsabilidad de los socios por las deudas sociales será ilimitada cuando los estatutos de la cooperativa lo determinen expresamente. En este caso la responsabilidad entre los socios será mancomunada simple, salvo que los propios estatutos la declaren de carácter solidario.*

⁶⁶ Gaztela Mantxako Kooperatiben Legea (11/2010 Legea) 7.4 art.: *los socios no responderán personalmente de las deudas sociales, limitándose su responsabilidad exclusivamente al importe de las participaciones sociales que hubieren suscrito, estuvieren o no desembolsadas. No obstante, en caso de baja en la cooperativa responderán, previa excusión del haber social, durante cinco años desde la pérdida de su condición y hasta el importe reembolsado o pendiente de rembolsar de sus participaciones sociales, por las obligaciones contraídas por la cooperativa con anterioridad a su baja. Los socios responderán ilimitadamente del cumplimiento de las obligaciones contraídas por su participación en la actividad cooperativizada, salvo en el supuesto de imputación máxima de pérdidas.*

⁶⁷ SUSO VIDAL José María, 'La imputación de pérdidas al socio en la liquidación concursal de la cooperativa', *Estudios sobre la Ley concursal: libro homenaje a Manuel Olivencia*, Vol. 5, Marcial Pons, Madril 2005, 4847-4877 orr.





Madrilgo kooperatiben legean berriz, sistema misto bat onartzen da. Normalean bazkideek kooperatibako jardueretatik sortutako galerez bakarrik erantzungo dute, baina gerta liteke ez ohiko eta kooperatibaz kanpokoak ere bazkideei eragitea.

Baja ematen duen bazkidearen erantzukizunaren arloan, Estatu mailan ezartzen da bazkide izanagatik hurrengo bost urtetan erantzule izaten jarraituko duela hartutako obligazioengatik. Baina Autonomia Erkidegoetan beste gaietan bezalaxe, desberdintasunak ezarri dira.

Euskadiren kasuan esan genezake bazkideek ez dutela erantzukizuna izaten jarraituko baja eman ondoren. Bazkideak berak egindako ekarpenen itzultzearen zenbatekoa finkatu den unetik aurrera ez dute erantzukizunik izango behin kooperatiba utzi ondoren⁶⁸. Bestalde, Gaztela Mantxako Legean Estatu mailako legedian jasotzen den ideia berdina dugu oinarri⁶⁹.

Baina bada bi ideia nagusietatik kanpo bestelako bat, hain zuzen ere, lege Madrildarrean jasotzen dena. Honen arabera, bazkideak erantzule izango dira sozietatea utzi eta bost urtera, hau da, kapital soziala gastatu bada, baina bazkideari errenboltoa adosterakoan kooperatibak, errenboltsoko zenbatekoaren adina fondoa baldin bazuen, bazkidea ez da erantzule izango.

Beraz, baja eragiten duen bazkideak bere erantzukizuna izango du, berak kapital sozialera egindako ekarpenaren baitan ezarri zaion erantzukizuna mugatua bada ere. Hau da, egin zuen ekarpenaren mugarainoko erantzukizuna izango du baja eman duen bazkideak hurrengo bost urtetan. Aldiz, Erkidegoan erantzukizun mugagabea ezartzeko aukera aurreikusten bada, baja-egoera gertatzean bazkidearen erantzukizuna luzatu egingo da bost urtez eta segun eta bere erantzukizun-mota zein den, modu mugatu edo mugagabean erantzungo du.

Nafarroako Erkidegoan, gehienetan bezalaxe, baja gauzatzen duen bazkideari erantzukizuna luzatzen zaio, baja eman eta hurrengo bost urtetan. Horrela jaso geratzen da Nafarroako Audientzia Probintzialeko lehen sekzioko otsailaren 15eko 52/2001 epaian⁷⁰: *el socio que ha causado baja бага frente a su responsabilidad quinquenal por las obligaciones asumidas por la cooperativa durante el tiempo en que fue socio de la misma*. Gauza bera gertatzen da Kataluniaren kasuan ere⁷¹.

Erantzukizunaren eremua bada, noraino luzatzen da? Estatu mailan, bazkide izandako uneko eta aurretik hartutako obligazioengatik erantzuten du bazkideak. Aldiz,

⁶⁸ Euskadiko Kooperatiben Legea (4/1993 Legea) 56.2 art.: *Una vez fijado el importe de las aportaciones a reembolsar, los socios que causen baja, no tendrán responsabilidad alguna por las deudas que hubiese contraído la cooperativa con anterioridad a su baja.*

⁶⁹ Gaztela Mantxako Kooperatiben Legea (11/2010 Legea), 7.4 art.: *los socios no responderán personalmente de las deudas sociales, limitándose su responsabilidad exclusivamente al importe de las participaciones sociales que hubieren suscrito, estuvieren o no desembolsadas. No obstante, en caso de baja en la cooperativa responderán, previa excusión del haber social, durante cinco años desde la pérdida de su condición y hasta el importe reembolsado o pendiente de rembolsar de sus participaciones sociales, por las obligaciones contraídas por la cooperativa con anterioridad a su baja. Los socios responderán ilimitadamente del cumplimiento de las obligaciones contraídas por su participación en la actividad cooperativizada, salvo en el supuesto de imputación máxima de pérdidas.*

⁷⁰ Audiencia Provincial de Navarra, (Sección 1ª), sentencia núm. 52/2001 de 15 de febrero.

⁷¹ Kataluniako Kooperatiben Legea (18/2002 Legea) 20.4 art.: *los socios que causen baja de la cooperativa, una vez fijado el importe de las aportaciones que deben reembolsarse, siguen siendo responsables ante la cooperativa, durante cinco años, de las obligaciones que ésta haya contraído antes de la fecha de la pérdida de su condición de socio o socia. Los estatutos sociales pueden establecer el método para la cuantificación y determinación de dicha responsabilidad.*





Valentziako Autonomia Erkidegoaren arabera, garbi mugatzen da eta esaten da, baja eman duen bazkidearen erantzukizuna bazkide izan zen unean hartutako obligazioez bakarrik izango dela eta ez aurrez hartutakoez. Berdina gertatzen da Andaluzian ere. Honela jasotzen da ideia hau Jaengo Audientzia Probintzialeko lehen sekzioko apirilaren 28ko 100/2011 epaian: *en cuanto al argumento de que la deuda que se pretende repercutir a los socios que han causado baja de la Cooperativa, sólo podría aceptar como exigible si esta deuda derivase de obligaciones contraídas por el socio frente a la Cooperativa.*

IV. Euskadi Autonomia Erkidegoko kasua

Euskadi mailan kooperatiben alorra arautzen duen lege bat daukagu, berau 4/1993 da⁷². Bere aurrekaria 1982ko legea⁷³ dugu, baina oso urria zela eta lege zabalago baten beharrak aldaketa ekarri zuen. Honekin batera, lege berriaren eraketan bazkideen erantzukizuna mugatua izango zela ezarri zen garbi. Izan ere, 1982koan bazkideek bere ondare propioekin erantzukizunari aurre egin beharra aurreikusten zen⁷⁴. Garai hartan, Euskal Autonomia Erkidegoan kooperatiben garapen handia gertatzen ari zen, batez ere, Mondragon kooperatibarekin.

Aurrez aipatu dugun bezala, Espainiako Estatu mailan legedia orokor bat dugu indarrean arlo honetan. Baina Autonomia Erkidegoei beraien Estatutuetan ezarritakoaren arabera, gai honen inguruan eskuduntza eskusiboa izateko aukera aitortu zaie. Esklusibotasun hori Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan bere Estatutuko 10.23 artikuluan ageri da: *La Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en las siguientes materias: 23. Cooperativas, Mutualidades no integradas en la Seguridad Social y Pósitos conforme a la legislación general en materia mercantil.*

Hori horrela, Euskadik kooperatiben inguruan arautzeko duen eskumena justifikatua geratzen da. Gainera esan beharra dago Euskal Autonomia-Erkidegoko legedi hau erreferente bat izan dela Estatu mailan beste Autonomia Erkidegoek egin dituzten araudientzako. Estatuko kooperatiben legedia orokorrarekin konparatzen badugu, lege honetan hainbat desberdintasun aurki genitzake.

Gure Erkidegoko Kooperatiba Legearen 56.1 artikulua bazkideen erantzukizunaz mintzatzen da. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan legez ezartzen da erantzukizuna mugatua izango dela, hau da, burututako ekarpenetara mugatzen dela erantzukizuna: *Los socios no responderán personalmente de las deudas sociales. Su responsabilidad por dichas deudas estará limitada a las aportaciones al capital social que hubieran suscrito.* Hemen beraz, ikus daiteke Euskadik egiten duen aukeraketa erantzukizun mugatuarena dela eta bazkideen erantzukizuna garbi egindako ekarpenera lotuta egongo dela.

Galeren eremuko erantzukizunaz mintzo garenean, Euskadiko kooperatiben legeko 22.g) artikulua honakoa dio: *Los socios estarán obligados a: g) Asumir la imputación de las pérdidas en la cuantía acordada por la Asamblea General”.*

⁷² Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legea, ekainaren 24koa, *EHAO*, zenb. 1993135, 1993ko maiatzaren 3koa.

⁷³ Euskadiko Kooperatiben 1/1982 Legea, otsailaren 11koa, *EHAO*, zenb. 1985102, 1985eko maiatzaren 17koa.

⁷⁴ ABASOLO DÍAZ DE BASURTO J.J, *REVESCO*, 66 zb., 1998.





Honen harira 69 artikulua aurkitzen dugu⁷⁵. Gizartean zalantza edo konfusioa sortu du azken honek. Bazkideen erantzukizun mugatuaren ideia kolokan jartzen du, eta askori beraien erantzukizuna mugagabea izan beharko zela ulertarazi dio.

Estatu mailan gertatzen den bezala, hemen ere, bazkidearen erantzukizun mugatuaren ideia ez da ongi ulertzen. Batetik, 56.1 artikulua garbi esaten du bazkidearen erantzukizuna mugatua dela eta beraz, bazkidearentzako ez duela zenbateko gehiago jarri beharrik eskatzen. Baina bestalde, 69. artikulura iritsitakoan badirudi edo uler daiteke, bazkideen erantzukizuna areagotu egiten duela. Izan ere, kooperatibak galerei aurre egin ezin dionean bazkideengana jotzeko aukera aurreikusten da.

Eremu honetan, aurrez egin dugun bezala, argitu behar da bazkidearengana hedatzen den erantzukizunak mugatua izaten jarraitzen duela egin zuen ekarpenaren mugarekin.

Hori horrela izanik, bazkide bakoitzari galera horiei aurre nola egin behar dien jakiteko sozietateak zenbateko bat izendatuko dio. Beraz, bazkidearen erantzukizuna zenbateko horretan egongo da jaso. Baina gerta liteke, bazkideak zenbateko hori jarri aurretik sozietatea konkurtsoan erortzea eta ordaindu gabeko zatia konkurtsoko masa aktiboaren parte izatera pasatuko litzateke. Ondorioz, konkurtsoko administratzaileek kooperatibistei kantitate horren ordainketa egin dezaten eskatu ahal izango die. Bazkide bakoitzak aurre egin beharreko zenbatekoa finkatu gabe baldin badago, zenbateko hori zehazteko kasuetarako egokitzat joko da konkurtsoko Batzarrak egitea⁷⁶.

Beraz, Batzarrak ezarritako zenbateko indibidualizatuari aurre egin beharko diete bazkideek, baina gorago azaldu den bezala, bakoitzaren erantzukizuna ezingo da egindako ekarpenaren zenbatekotik pasa. Hau da, galeren aurrean erantzungo da, baina bazkide bakoitzak egin duen ekarpenaren zenbatekoa ezin izango da gainditu⁷⁷.

Bestalde, bazkideak baja ematen duen kasutarako, beste Autonomia Erkidegoetan eta Estatu mailan ez bezala, bazkideak ez du erantzukizunik izango baja eman aurretik kooperatibak hartutako erabakiengatik. Hau da, baja eman aurretik kooperatibak hartutako zorren erantzukizunetatik aske geratzen dira bazkideak⁷⁸.

⁷⁵ Euskadiko Kooperatiben Legea (4/1993 Legea), 69.artikulua:

1. Los Estatutos deberán fijar los criterios para la compensación de las pérdidas, siendo válido imputarlas a una cuenta especial para su amortización con cargo a futuros resultados positivos, dentro del plazo máximo de cinco años.

2. En la compensación de pérdidas la cooperativa habrá de sujetarse a las siguientes reglas:

a) A los fondos de reserva voluntarios, si existiesen, podrá imputarse la totalidad de las pérdidas.

b) Al Fondo de Reserva Obligatorio podrá imputarse como máximo el porcentaje medio de lo destinado a los fondos legalmente obligatorios en los últimos cinco años de excedentes positivos, o desde su constitución si ésta no fuera anterior a dichos cinco años.

c) La cuantía no compensada con los fondos obligatorios y voluntarios se imputará a los socios en proporción a las operaciones, servicios o actividades realizadas por cada uno de ellos con la cooperativa. Las pérdidas imputadas a cada socio se satisfarán de alguna de las formas siguientes: **1.** Directamente o mediante deducciones en sus aportaciones al capital social o, en su caso, en cualquier inversión financiera del socio en la cooperativa que permita esta imputación, dentro del ejercicio siguiente a aquel en que se hubieran producido. **2.** Con cargo a los retornos que puedan corresponder al socio en los cinco años siguientes. Si quedasen pérdidas sin compensar, éstas deberán ser satisfechas por el socio en el plazo máximo de un mes.

⁷⁶ Euskadiko Kooperatiben legea (4/1993 Legea) 92. art.: reclamar y percibir los créditos pendientes, sea contra terceros o contra los socios.

⁷⁷ ALZOLA BERRIOZABALGOITIA I., *op. cit.*

⁷⁸ Euskadiko Kooperatiben Legea (4/1993 Legea), 56.2 art.: una vez fijado el importe de las aportaciones a reembolsar, los socios que causen baja, no tendrán responsabilidad alguna por las deudas que hubiese contraído la cooperativa con anterioridad a su baja.





Hala ere, Euskadiren kasuan, bere legeko 26.3 artikuluan aukera ematen da kooperatibako Estatutueta bazkidearen iraunkortasuna ezartzeko ekitaldi ekonomikoa amaitu arte edo denboraldi minimo bat ezartzeko, baina bost urte baino gehiagokoa ezingo da izan⁷⁹. Hori bai, muga hau izanagatik ere, behin baja eman ondoren bazkideen erantzukizuna bertan behera geratuko da.

Laburbilduz, bazkideak baja emateko aukera izango du, baina legez permanentzia minimo bat ezartzen bazaio, hura errespetatu beharko du. Behin denboraldi hori errespetatuta baja eman ondoren bazkide horrek ez du erantzukizuna izaten jarraituko beste zenbait Autonomia Erkidegoetan gertatzen den bezala.

Euskadiko Kooperatiben legeak zazpi urtez indarrean izan ondoren, bere egokitasunaren inguruan eztabaidak hasi ziren. Ez zegoen argi uneko beharrei erantzuteko nahikoa ote zen edo aldaketaren bat egin behar zitzaion. Aldaketa hau egiteko ideia, 1997. urtetik pentsatua zegoen baina formalki 1999. urtean aurkeztu zen⁸⁰. Sektoreak eskatutakoa zen aldaketaren beharra. Aldaketa honen proposamena *Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado de Euskadi* erakundearen babesarekin hasi zen eta baita Euskadiko Kooperatiben Konfederazioarekin ere.

Euskadiko Legebiltzarrak alderdi politiko guztien botoekin onartu zuen lehen legea izan zen 1/2000 legea⁸¹. Bestalde, ordura arte kooperatibak eratzearen kopuruak gora egiten zuen eta kooperatiben hazkundeak ere aldi berean. Horrela beraz, legediaren zenbait artikuluren aldaketak egitea onartu zen. Ekarri zituen berrikuntza nagusien artean aipatzekoak dira: kooperatiba berrien eratzea sustatzea, kooperatibizazio handiagoaren aldeko apustua, kapitalaren erregimenean zenbait hobekuntza, kooperatiba-taldeei babes juridikoa ematea eta tratu berdintasuna bazkide langile eta bere kabuz lan egiten duten langileen artean.

Baina urte horretatik aurrera, hots, 2000. urtearen inguruan, gorako lerroa beheraka egiten hasi zen. Hori horrela izanik, aspaldidanik zegoen bazkide eratzaileen zenbatekoa gutxitzeko asmoa eta beraz, lege berri horrekin onartu zen kooperatiba bat eratze bost bazkideren beharra izan beharrean nahikoa izango zela hiru bazkide elkartzea⁸². Hau horrela ezarri zen, bereziki kooperatiba-taldea kooperatiba gisa eratu beharrean erantzukizun mugatuko sozietate gisa eratze joera hartzen ari zirelako.

Dena den, bazkideen erantzukizunaren inguruan sortu daitezkeen nahasmenduen aurrean ez zen aldaketarik egin⁸³. Ondoren 2006. urtean Euskadiko Kooperatiben legeak beste aldaketa bat jasan zuen⁸⁴. Baina honek ere, ez zuen bazkideen erantzukizunaren

⁷⁹ Euskadiko Kooperatiben Legea (4/1993 Legea), 26.3 art.: *Sin perjuicio de lo establecido en el número 1, los Estatutos pueden exigir la permanencia de los socios hasta el final del ejercicio económico o por un tiempo mínimo que no podrá ser superior a cinco años.*

⁸⁰ Entrevista a Alfredo IZPIZUA: ATIENZA MACÍAS E., MERINO MAR J.A., RUIZ DE HUYDOBRO eta DE LAS MUÑECAS E.G., 'Derecho de las Sociedades Cooperativas en Euskadi: Un análisis sobre su estructura orgánica y la política cooperativa de los últimos ejercicios', *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo* 38, Publicaciones de la Universidad de Deusto, Bilbo, 2004, 105-191.orr.

⁸¹ Euskadiko kooperatiben legea aldatzen duen 1/2000 legea, ekainaren 29koa, EHAO.

⁸² Euskadiko Kooperatiben Legea (4/1993 Legea) 19. artikulua, 1/2000 Legearen bidez modifikatua izan zena: *En el momento de la constitución, las cooperativas de primer grado habrán de estar integradas, al menos, por tres socios de la clase de la cooperativa que se constituye. Las de segundo o ulterior grado deberán contar entre sus socios fundadores con dos sociedades cooperativas como mínimo.*

⁸³ MERINO HERNÁNDEZ S., *Estudios Sobre Economía Social y Derecho Cooperativo*. 'Administración pública y sociedades cooperativas: El caso Vasco', Marcial Pons, Gezki, Madril etaartzelona, 1999, 83-165 orri.

⁸⁴ Euskadiko kooperatiben legea aldatzen duen 8/2006 legea, abenduaren 1ekoa, EHAO.





inguruan aldaketarik ekarri. Honako artikulua hauetan bakarrik egin zen aldaketa: 57, 60, 62, 63, 94 y 103.

Gaur egunean, kooperatiben alorrean gertatzen ari direnak ikusita, egokia litzateke beste lege-aldaketaren bat planteatzea. Batez ere, bazkideen erantzukizunaren eremua ongi zehaztu eta argitzen duen arauekin. Euskadiren kasuan eragin handia izaten ari den gaia da hau. Izan ere, kooperatibak merkatuan oso hedatuak daude gure Erkidegoan eta egun bizitzen ari garen krisia dela eta nabarmena da bazkideen artean sortu den kezka.

Kooperatiben zorren aurrean bazkideak nola erantzun behar duenaren artikulua erredakzioa (56.1 art.) egokia dela esan daiteke eta ulergarria aldi berean. Baina 69. artikulua sortzen dituen arazoak konpontzeko bestelako erredakzio bat komeni dela azpimarratu beharra dago.

Horrekin legea herritarrenganako ulerterrazagoa izatea lortuko litzateke. Herritar guztien Zuzenbidearekiko jakintza berdina ez denez, baina aldiz, eragin denoi berdina egiten digunez, zalantzarik sortzen ez duten arauak eratzea izan beharko litzateke helburua.

Azken batean, legea ez ezagutzeak aplikatuko ez zaionaren ideia okerra da eta jendeak ongi ezagutu eta ulertu behar dituen arauak eginez arazo asko ekidingo genituzke.

V. Ondorioak

Kooperatiben arauketan, Estatu mailako legedia eta Autonomia Erkidegoetakoak aurkitzen ditugu. Beraien barnean hainbat zalantza sortzen dira idazkera desegokia dela eta, edo interpretazio desberdinen ondorioz.

Funtsean esan, Estatu mailan bazkideen erantzukizunaren inguruan ezartzen den erregela orokorra erantzukizun mugatuarena dela. Hots, bazkideek egin edo agindu duten ekarpenaren mugarekin erantzuten dutela kooperatibako zorren aurrean eta, galeren aurrean ere, erantzukizunaren muga ekarpen horretan ezartzen dela.

Bestalde, Zuzenbidean aukera eman izan da bazkideen erantzukizun-maila aukeratzeko. Hots, Autonomia Erkidegoetako kooperatiba legeetan ontzat eman da kooperatiben estatutuetan bazkideen erantzukizun mugatu eta mugagabearen artean aukeratzeko eta esan genezake, ez dela inoiz inposaketarik burutu.

Kooperatibako zorrei dagokienez, praktikan, bazkideen erantzukizun mugagabearen aukera da gutxiena erabiltzen dena. Izan ere, bazkide batentzat mugagabeki erantzuteak ardura handia dakar bere gain, bere ondasun propioak arriskuan jartzen dituelako eta ondorioz, horiek gabe geratzeko aukera gerta litekeelako. Beraz, erantzukizun mugatua da gehien erabiltzen dena edo aukeraketa ez egitearen hutsunaren ondorio gisa erabiltzen dena eta ondorioz, erabili dena.

Kooperatibako galeren eremuan berriz, bazkide bakoitzak ezarria duen erantzukizun-motaren arabera jardun beharko du. Honen aurrean, zenbait Autonomia Erkidegotan legez erabaki da bazkideen erantzukizuna zabaltzeko aukera izatea, hau da, bazkidearen erantzukizuna mugatua izanagatik ere, kooperatibako estatutuen bidez zabaltzeko aukera izatea, horrela, legearen sistema hautsi gabe geratuz.



Baina bazkidearen erantzukizuna zabaldu izana ez bada kooperatibaren estatutuaren modu espresean jasotzen, ulertu behar da bazkidearen erantzukizunak kooperatibako galeren aurrean ere mugatua izaten jarraituko duela, hau da, berak egindako edo agindutako ekarpenaren mugaraino erantzungo duela.

Honen inguruan bada kasu berezi bat, alegia, bazkideak baja ematearena, legedi guztiek (estatukoak eta autonomikoek) bereziki arautzen dutena. Kasu honetan Euskadik ez du bazkideak baja eman eta hurrengo bost urtetan erantzukizuna izaten jarraitzeko egoera onartzen. Hots, bazkideak baja ematen duenean, sozietatearekiko bere ardura amaitu egiten da. Aldiz, beste Erkidegoetan baja eman eta hurrengo bost urtetan bazkidearen erantzukizunak iraun egiten du, berak egindako ekarpenaren mugarekin.

Euskadiren kasuan, legean espresuki jasotzen da kooperatibako bazkideen erantzukizun mugatua, baina kooperatiben galerei buruzko artikulua erantzukizun mugatuaren inguruan nahasmena sortu du. Hori horrela, bazkideen erantzukizuna galeren aurrean ere mugatua dela ondorioztatu behar da, hots, egindako edo agindutako ekarpenaren zenbatekoa errespetatuaz.

Amaitzeko esan, espainiar sisteman erregela orokorra kooperatibako bazkideen erantzukizun mugatua dela, baina legez, zenbait kasutan erantzukizuna zabaltzeko aukera ere ematen dela. Beraz, legea errespetatuz egiten den bitartean zilegia izango da erantzukizun hori zabaltzea. Baina justuki Euskal Autonomia Erkidegoan ez da aukera hori jasotzen.

BIBLIOGRAFIA

- ABASOLO DÍAZ DE BASURTO J. J., 'La Ley vasca de Cooperativas', *REVESCO*, 66 zb., 1998.
- ALZOLA BERRIOZABALGOITIA I., 'La responsabilidad de los socios de las cooperativas', *legaltoday.com*, 2009.02.29.
- ARCO ÁLVAREZ, J.L., 'Régimen económico de las cooperativas españolas', *REVESCO*, 1970, 39 orr.
- ARCO ÁLVAREZ, J. L., 'Teoría y práctica de las sociedades cooperativas', *Tema de estudio de los Cursos I,II y III*, Universidad Politécnica de Valencia, 1974, 55. orr.
- ATIENZA MAZÍAS, E.; MERINO MAR J. A, RUIZ DE HUYDOBRO eta DE LAS MUÑECAS, E.G., *Derecho de las Sociedades Cooperativas en Euskadi: Un análisis sobre su estructura orgánica y la política cooperativa de los últimos ejercicios*, Deustuko Unibertsitatea. *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo* 38, Publicaciones de la Universidad de Deusto, Bilbo, 2004, 105-191.orr.
- BAKAIKOA AZURMENDI, B., 'El cooperativismo vasco el ejemplo de la Mondragon Corporación Cooperativa', *El cooperativismo Vasco y el año 2000*, Marcial Pons, Gezki, Madrid, 1995, 29-47 orr.
- BOTTERI, T., 'La normativa delle cooperative nella legislazione della Repubblica Federale Tedesca', *Rivista della Cooperazione*, 3. zb., 1980. 92orr.
- CANALEJO, P., *El nuevo derecho cooperativo Español*, Digesa, Madril, 1979, 72 eta 196-197 orr.
- CARRERAS ROIG, L., El subsector empresarial no financiero de la economía social. *La fiscalidad de las sociedades cooperativas, sociedades laborales y sociedades agrarias de transformación*, Universitat Rovira i Virgili, 2008, 186-267 orr.
- ELENA DÍAZ, F., 'Ideas sobre una posible interpretación de las pérdidas del pasivo según la vigente ley', *Estudios cooperativos*, 36-38 zb., 1975-1976, 190 orr.



- FAJARDO GARCÍA, I.G., *La gestión económica de las cooperativas: responsabilidad de los socios*, Capítulo V, Tecnos, Confederación de cooperativas de la comunidad Valenciana, 1997, 197-245. orr.
- GADEA, E.; SACRISTÁN, F.; VARGAS, C., *Régimen jurídico de la sociedad cooperativa del siglo XXI, realidad actual y propuestas de reforma*, Madril, 2009, 1-696 orr.
- GARCÍA GALLARDO, M., *Derecho comparado de las cooperativas de crédito y cajas rurales*, *Estudios cooperativos*, zb. 51, Ed. universidad complutense de Madrid, 1983, 13-21 orr.
- GARRIGUES, *Curso de Derecho Mercantil*, I. alea, 7. ed., 1982, 381-382 eta 387 orr.
- GOMEZA VILLA, J. I., *Comentarios a la ley de cooperativas 27/1999 de 16 de julio*, I. alea, Madril, 2001, 294 orr eta hh.
- GRIMALDOS GARCÍA, M.I., 'El concurso de la cooperativa y su repercusión en el patrimonio personal de los socios', *Revista de Derecho Concursal y Paraconcursal*, 11 zb., 2009, 323. orr.
- LARRAÑAGA J., *Análisis de la Legislación Vasca sobre cooperativas*. C. L. P. San Sebastián, Donostia, 1985, 34 orr.
- MATEO BLANCO, J., 'El Retorno cooperativo', *REVESCO*, Zaragoza, 2. ed, 2003.
- MERINO HERNÁNDEZ, S., 'Administración pública y sociedades cooperativas: el caso Vasco', *Estudios Sobre Economía Social y Derecho Cooperativo*, Marcial Pons/Gezki, Madril eta Bartzelona, 1999, 83-165 orr.
- PANIAGUA ZURERA, 'Mutualidad y lucro en la sociedad cooperativa', en: M. OLIVENCIA, C. FÉRNANDEZ-NOVOA, R. JIMÉNEZ DE PARGA (zuz.) eta G. JIMÉNEZ SÁNCHEZ (koor.) *Las sociedades mutuas de seguros y mutualidades de previsión social*, vol. 1º del tomo XII del *Tratado de Derecho Mercantil*, McGraw-Hill, Madril-Bartzelona, 1997, 1-537 orr.
- PAZ-ARES, C., 'Capítulo 19. La sociedad en general: elementos del contrato de sociedad', en: URÍA-MENÉNDEZ (zuz.), *Curso de derecho Mercantil I*, 2. ed, Thomson Civitas, Madril, 2006, 503-529 orr.
- URÍA, R.; MENÉNDEZ, A.; VÉRGEZ, M., Capítulo 52, 'Sociedades cooperativas', en: Uría - Menéndez (Dir) *Curso de derecho Mercantil I*, 2.Ed, Thomson Civitas, Madril, 2006, 1438 orr.
- SUSO VIDAL, J. M., 'La imputación de pérdidas al socio en la liquidación concursal de la cooperativa', *Estudios sobre la Ley concursal: libro homenaje a Manuel Olivencia*, 5. alea, Marcial Pons, Madril, 2005, 4847-4877 orr.
- VARGAS VASSEROT, C., *Revista Jurídica CIRIEC 21*, 'El derecho de reembolso del socio en caso de baja y el concurso de las sociedades cooperativas', 2010, 1-22 orr.
- VERRUCOLI, P., *La società cooperativa*, Milan, 1985, 160 orr.
- VICENT CHULIÁ, F., *Ley general de cooperativas, Tomo XX de los Comentario a al Código de comercio y Legislación mercantil Especial*, 3. alea, Madril, 1994, 372 orr eta hh.
- *Introducción al derecho mercantil*, 1. alea, 23. Ed. Tirant lo Blanch, Valentzia, 2012, 1186-1191 orr.
- VILLAFÁÑEZ PÉREZ, I., 'Capítulo V. Presupuestos del concurso de la cooperativa', *Pérdidas, disolución y concurso en sociedades cooperativas*, Marcial Pons, 2012, 133 orr eta hh.



Lege testuak

Constitución española, *BOE* núm. 311, 29 de diciembre de 1978.

Ley Orgánica 9/1992, de 23 de diciembre, de transferencia de competencias a Comunidades Autónomas que accedieron a la autonomía por la vía del artículo 143 de la Constitución, *BOE* núm. 308, 24 de diciembre de 1992.

Ley Orgánica 16/1995, de 27 de diciembre, de 1995 de Transferencia de Competencias a la Comunidad Autónoma Gallega, *BOE* núm. 310, 28 de diciembre de 1995.

Ley Orgánica 4/1996, de 30 de diciembre, de reforma de la Ley Orgánica 10/1982, de 10 de agosto, de Estatuto de Autonomía de Canarias, *BOE* núm. 315, 31 de diciembre de 1996.

Ley 3/1987, de 2 de abril, General de Cooperativas, *BOE* núm. 84, 8 de abril de 1987.

Lege 4/1993, Euskadiko Kooperatibena, ekainaren 24koa, *EHAO*, zenb. 1993135, 1993ko maiatzaren 3koa.

Ley 27/1999, de 16 de julio, de Cooperativas, *BOE* núm. 170, 17 de julio de 1999.

Ley 4/1999, de 30 de marzo, de Cooperativas de la Comunidad de Madrid, *BOE* núm. 131, de 2 junio de 1999.

Ley 18/2002, de 5 de julio, de Cooperativas de Catalunya, *BOE* núm. 179, de 27 de julio de 2002.

Ley 8/2003, de 24 de marzo, de Cooperativas de la Comunidad Valenciana, *BOE* núm. 87, de 11 de abril de 2003.

Ley 22/2003, de 9 de julio, Concursal, *BOE* núm. 164, 10 de julio de 2003.

Ley Foral 14/2006, de 11 de diciembre, de Cooperativas de Navarra, *BOE* núm.4, 4 de enero de 2007.

Ley 8/2006, de 16 de noviembre, de Sociedades Cooperativas, de la Región de Murcia, *BOE* núm. 11, 9 de mayo del 2007.

Ley 11/2010, de 4 de noviembre, de Cooperativas de Castilla-La Mancha, *BOE* núm. 37, 12 de febrero de 2011.

Ley 14/2011, de 23 de diciembre, de Sociedades Cooperativas Andaluzas, *BOE* núm. 17, de 20 de enero de 2012.

Ley 6/2013, de 6 de noviembre, de Cooperativas de Cantabria, *BOE* núm. 284, de 27 de noviembre de 2013.

Decreto 2396/1971, de 13 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Cooperación, *BOE* núm. 242, 9 de octubre de 1971.

Epaiak

Tribunal Superior de Justicia de Cataluña (Sala 1ª), sentencia núm 5/2006, de 9 febrero, Aranzadi RJ 2006/6026.

Audiencia Provincial de Navarra (Sección 1ª), sentencia núm. 52/2001 de 15 de febrero.

Audiencia Provincial de Jaén (Sección 1ª), sentencia núm. 276/1997 de 15 de septiembre.

Audiencia Provincial de Jaén (Sección 1ª), sentencia, núm 100/2011 de 28 abril.

Audiencia Provincial de León (Sección 2ª), sentencia núm. 209/2003 de 30 de mayo.